

'Elgeta' trikitilaria

Haren omenaldiak bete egin zuten Espaloia
KULTURA, 22-23



Aloñak berdinketa besterik ez zuen lortu

Mondrak 5-1 eta UDAk 2-1 irabazi zuten etxean
KIROLA, 14-15

Erdi Aroko azoka

Arrasateko alde zaharra bete du
GEUREAN, 8



ASTELEHENEKO Goienkaria

ASTELEHENA • 2006ko maiatzaren 22a • 3. urtea • 102. zenbakia • 0,90 euro



JOSETXO ARANTZABAL

AGIRRE ASKATZEKO GELDIALDIA DEITU DUTE BARIKURAKO

Ehunka lagun atera ziren kalera zapatu arratsaldean Arrasaten, Jon Agirre presoaren baldintzarik gabeko askatasuna eskatzeko. 25 urte daroa kartzelan, eta, gaixo dagoen arren, 92. artikulua ukatu diote. Iturripe kiroldegian egindako ekitaldian, barikurako ordu erdiko geldialdia deitu du Askatasunak. **6**



MIREIA BIKUÑA

Arrasatearrek xanpainarekin ospatu zuten iguera atzo eguerdian.

Igoera lortu du Ford Mugarrik

Euskadiko Txapelketan jokatuko dute datorren denboraldian **18**

Hilaren 30ean zozketatuko dituzte babestutako etxebizitzak Elgetan **6**

Unai Yus nagusitu da Arrasaten jokatuako Euskadiko Openean **16-17**

Patin-zaleak Urkulun batzeko deia

Patinatzaile-suge ahalik eta luzeena egin nahi dute errekorra ezartzeko **5**

Lurzoruaren legeak ahalik eta gehien mugatzearen aldeko

Lurzoru gabeziaren aurrean erakitzea ahalik eta gehien mugatu behar dela azaldu zuten hizlariak Arrasaten, hirigintza iraunkorrari buruzko mahai-inguruan. **2-3**

GEUREAN

- Lekuz aldatuko dute datorren urtean Antzuolako San Isidro feria erreka bideratzeko lanen ondorioz | 4
- Loramendikoek herritarrak egindako lana nabarmendu dute Euskararen Egunaren biharamunean | 10

Patinatzaile ahalik eta gehien batu nahi dute egunean Urkulun errekorra egiteko | 5

HIRIGINTZA IRAUNKORRARI BURUZKO MAHAI-INGURUA



JON BEREZIBAR

Eraikigarritasun minimoaren printzipioaren egokitasunarekin bat etorri ziren hizlariak eguneko mahai-inguruan.

SOSTENGARRITASUNA | EGUNGO HIRIGINTZA EREDUA ETA IRAUNKORTASUNA AZTERTU ZITUZTEN HAINBAT ADITUK

Lurzoru-lege interbentzionistenaren eta mugatuenaren alde egin zuten

Debagoiena eredu moduan hartuta, hirigintzaren iraunkortasunari eta lurzoruaren legeari buruzko mahai-ingurua egin zuten Arrasaten egunean, Naturgintzak antolatuta

Jon Berezibar

Lurzoru-lege berria eta hirigintza iraunkorra hizpide hartuta, mahai-ingurua egin zuten egunean Monterronen, Arrasateko Udalak eta Naturgintza Fundazioak antolatuta.

Eusko Jaurlaitzatik Javier Dean egon zen lege berriaren gaineko azalpenak ematen, Etxebizitza sailburuorde moduan.

Administrazio publikoek bigarren ordezkarri bat ere izan zuten; Arrasateko Udaletik Jose Antonio Urdangarin, Hirigintza Sailko burua, joan zen. Maite Aristegik, baserritar eta EHNE sindikatuko idazkari nagusi ohi moduan, nekazarien ikuspuntua eraman zuen eta hizlariak osatzeko Garbiñe Biurrun epailea egon zen, Etxebizitza Eskubidearen eta Euskadiko Lurzoru Lege-

aren Manifestuaren sustatzaile moduan. Lurzoru-lege interbentzionistaren beharrea bat egin zuten guztiek, baina nor bere ñabardurak gehitu zizkion gaiari. Hala, adibide moduan, eta Euskadin lurzoruarekin dagoen arazoaren erakusle bezala, Debagoiena ipini zuten. 350 kilometro koadroko azalera 60.000 biztanle baino gehiago ditu ibarrak.

Biztanle-dentsitatea kilometro koadroko 80 lagun bada ere, erlatiboki da bakarrik baxua, orografia menditsuak etxebizitzak jasotzeko lekuak asko murrizten du-eta. Hala, Debagoieneko testuingurua Euskadira estrapola daiteke arazoak aztertzeke. Hain zuzen ere, hizlari bakoitzak legeak ukitzen dituen hainbat aspektu jorratu zituen.

Horren ildora, Javier Deaneke legearen funtzionamendua argitu zuen eta Urdangarinak haiek udaletan nola eragiten duten. Lurzoruari dagokionez,

Debagoieneko eredu adibide moduan hartu zuten hizlariak

Legeak nekazari lurrak babestu eta etxebizitza eskubidea bermatu behar omen ditu

nekazari lurren garrantziaz mintzatu zen Aristegi eta Garbiñe Biurrunek etxebizitza duina izateko eskubidea eta hiritarren partaidetza defendatu zituen entzuleen aurrean.

"Lege zaila" izan dela aitortu zuen Deaneke, "iragan legealdietan gobernuak hautsi dituen, baina erabat beharrezkoa". Araldi berriak dakarren berrikuntzetako bat minimo eraikigarriaren kontzeptua da, eraikitze gutxieneko etxebizitza kopuru bat ezartzen duena, aprobetxamendua berma dadin. Urdangarinak, neurriak "zurrunegiak" direla iritzita ere, beharrezkoa dela onartu zuen. Legearen gaineko zalantza gehien Maite Aristegik agertu zuen, batez ere nekazaritzarako lurren babes-

HIRIGINTZA IRAUNKORRARI BURUZKO MAHAI-INGURUA

ri dagokionez. "Motz geratuko" den beldurra erakutsi zuen baserriarrak. Nahita ez, nekazaritzarako lurrak babestu eta ukitu gabeko sailak utzi behar dutela ezinbestekoa dela adierazi zuen Aristegik. Legeari dagokionez, hiru berme eskatu zituen: "Hiritarrei informazioa ematea eta ez zabaltzen den propaganda hutsa, eztabaidetan parte hartzeko aukera eta haietan hartutako erabakiak lotesleak izatea".

Oso modu antzekoan mintzatu zen Garbiñe Biurrun herriarren partaidetzari dagokionez, eta gehitu zuen "espekulazioarekin amaitu gura bada, ahalik eta zorrotzen finkatu behar" direla mugak. Tartean, nekazaritza-erabilpenerako lurrak leudeke, gero eta urriagoak, Aristegik salatu bezala. "Egiten diren politikek gero eta mendirago eramaten gaituzte baserriarrak eta kontuan hartu behar da ukitu gabe ere utzi behar direla lur batzuk", zioen Aristegik.

NOLA EDO HALA, BEHARREZKOA DAGOENEO

Gauden egoeran egonda "beharrezko legea" dela azaldu zuen Deane eta "erantzuteko modu asko egon badaitezke ere, aurkeztutakoa euren" dela. Lurzorua babesteaz gain, alokairua eta etxebizitza zaharren berrerrabilpena sustatu behar dela gehitu zuen, baina legea behar-beharrezkoa dela Euskadiko eredia berezia delako. Horregatik, gure testuinguruan lorategi-hiriak pentsaezinak direla esan zuen Biurrunek eta "zer esanik ez bigarren etxebizitzez, arazoa larritu besterik egiten ez dutenak".

Hala, eskumen ia guztiak orain udalen esku geratzen dira lege berriarekin, baina araudiak oso zehatz ezartzen ditu mugak, "zehatzegi", Urdangarinentzat. Hala ere, bi ideiarekin bat egin zuten lau hizlariek: lurzuaren legeak interbentzionista izan behar zuela, mugak garbi zehazteko eta eraikigarritasun minimoaren printzipioa oso egokia dela Euskadiko lurzuaren egoera bereziaren aurrean.

• HIZLARI BAKOITZAK MAHAI GAINEAN IPINITAKO IKUSPUNTUAK



JAVIER DEAN |
ETXEBIZITZA SAILBURUORDEA

"Dauzkagun ikerketen arabera 100.000 etxebizitza baino gehiago beharko ditugu EAEn"

Lurzoruaren lege berria arazoari erantzuteko modu bat izanda, bakarra ez dela aitortu zuen Deane, baina lehenbaiten egin beharrekoa. Izan ere, "etxebizitza hutsen mobi-

lizazioa oso zaila da, erabilgarritasun txikia dago-eta; hori dela-eta, eraikitzen jarraitu beharra dago".

Ezinbestekotzat jo zuen, beraz, "erabiliko diren lurren erabilera intentsiboa egitea eta horregatik ezarri da eraikigarritasun minimo bat". Ze eremu diren kolonizagarriak eta zeintzuk ez ondo bereiztu behar dela esan zuten Etxebizitza sailburuordeak. Hark agertu bezala: "Askatasuna ahalik eta gehien mugatzen saiatu gara, ekimen pribatuek baino gehiago, udalek erabaki dezaten". Euskal eremuan ezinezkoa dela dio bestelako eredurik planteatzea, lurzoruaren urritasuna handia da-eta, baina, era berean, etxebizitza hutsen eta alokairuaren alde agertu zen Dean, "dauzkagun baliabideei ahalik eta aprobetxamendu onena ateratzeko", hain zuzen ere.



J. A. URDANGARIN |
ARRASATEKO HIRIGINTZA DEP.

"Hazkunde arazo bera daukagu udalek; gero eta gehiago eta garestiago gaitza eraikitzen"

"Traunkortasuna balio sozio-kulturaletan neurtzen hasi" garelako dio Arrasateko udal teknikariak. Lurzoruaren erabilpena kontrolatu eta erabilera bat baino gehiago ematean ei-

dago gakoetako bat. Hirigintza kontuetan udalek eskumen ia guztiak dauzkate, eta, Urdangarinek agertu zuenez, Arrasateko Egitamu Orokorrean aintzakotzat hartu da erabilpen anitzen irizpide hori. Harrobiak ipini zituen adibide: aurki itxiko ei dituzte batzuk eta haien lurzoruak urbanizatzea aukera bat dela dio Udaleko ordezkariak. Olandixoko tunela egiteko erabiliko diren hondakindegia lubeta bihurtu eta etxeak egitea izan daiteke beste aukeretako bat. Arrasaten auzo batzuk osorik eraldatzea ere ikusten du Urdangarinek, bere garaian, egin zirenean, ez zirelako ondo aprobetxatu. "Gelma edo Zerrajerako gunek berrerrabili egingo dira, lehen industria-lurzoruak zirenak", azaldu zuen. "Horrela, ez dago nekazaritzako lurrei zertan gehiago kendu".



MAITE ARISTEGI |
EHNE-KO IDAZKARI OHIA

"Nekazaritza beharrezkoa da gizartearentzat eta sarri baserri-lurrak gutxiagotzat hartu dira"

Sarri nekazaritzarako lurrei azken maila ematen zaiela salatu zuen Maite Aristegik. "Nahita ez behar ditugu lurrak, gizartearentzat ezinbestekoa da-eta nekazaritza". Datuak ekarri-

zituen argitara Aristegik: 1994tik 2004ra 7.600 hektarea porlan bihurtu dituzte eta ez da kontuan hartzen horrek gizarte-ari dakarkion kostua. Aberastasuna ez dute bakarrik enpresek sortzen; orain ingurumenarekin bezala, etorkizunean nekazaritzaren galerak aintzakotzat hartzen hasiko dira, kostu moduan". Eredurekatuaren alde egin zuen EHNEko idazkari ohiak, "batzuek uste dutelako naturak doan ematen duela, eta oso epe laburrerako plangintzak egiten dira". Ukitu barik utzi behar diren lurrak ezinbestekoak direla dio Aristegik eta garbi utzi gura izan zuen eurak sekula ez direla proiektuen aurka egon, ondasun sozialaren alde egiten badira, baina esan zuenez, "garbi izan behar dugu zein herri-eredu behar dugun aurrera egiteko".



GARBIÑE BIURRUN |
LEGLARIA

"Eraikigarritasun minimoaren kontzeptua oso garrantzitsua da aprobetxamendurako"

Etxebizitza duinaren aldeko manifestuaren sustatzaile moduan hartu zuen hitza Garbiñe Biurrun epaileak. Hasierabaten, lurzoruaren eskasia "abantaila natural" moduan ikus dai-

tekeela adierazi zuen Biurrunek, "lurrak zaindu eta aurrezteko neurriak hartzea behar-tzen gaituelako eta ezin daitekeelako gehiago eraiki". Lurzorua behar bezala kudeatu ahal izateko ezinbestekotzat ulertzen ditu tresna hauek: legedia, hirigintza plangintza zehatzak eta hiritarren partaidetza bermatuko duen legea, behar-beharrezkoa hirigintza kontuetan". Halaber, garrantzitsua iruditzen zaio Biurruni etxebizitzarako eskubidearen eta nekazari lurren babesaren arteko oreka behar bezala aurkitzea, biak errespetatuaz. Horren harian, oso begi onez ikusten du ezarri diren eraikigarritasun estandar minimoak, ze neurriak aurrez finkatzea eta ingurumen azterketak egitea ezinbestekoak iruditzen baitzaizkio garapen iraunkorra bermatu ahal izateko.



Erosten jakin:
ZURE FAMILIARENTZAT ONENA AUKERATU



Erosten jakin



JOSETXO ARANTZABAL

Antzuolako bederlatzi abeltzainek eroandako ardiak, ahariak, behiak, idi pareak, astoak, zaldiak eta pottokak egon ziren ikusgai.

SAN ISIDRO FERIA | OHI BEZALA HERRIKO GANADU ETA ARTISAUAK IZAN ZIREN NAGUSI

Antzuolarrek azkenekoz egin zuten San Isidro feria plazan, zapatuan

Erreka bistaratzeko lanak direla-eta litekeena da pilotaleku inguruan egitea datorren urtean feria

Monika Belastegi

San Isidro feria ospatu zuten zapatuan antzuolarrek. Ganadua, artisauak, jakiak, baserriko makineria, txorimaloak... Askotarikoak zeuden ikusgai herriko plazan, horixe baita azkeneko urteetan feriarene kokalekua. Datorren urtean, baina, feria

lekuz aldatu beharra izango dute antzuolarrek, Dina Muxika zinegotziak azalduz moduan: "Erreka bideratzeko egiten ari garen lanak direla-eta azoka lekuz aldatu beharko dugu datorren urtean. Izan ere, datorren maiatzerako oso aurreratuta egongo dira plazan erreka bistaratzeko lanak eta horrek koka-

leku berria bilatu beharra esan nahi du". Dagoeneko hasi dira leku berrian pentsatzen: "Hasierako urteetan pilotaleku inguruan egiten genuen San Isidro feria eta baliteke datorren urtean ere hara eramatea". Dena dela,

Herriko abeltzain, baserriar eta artisauak dira feriarene ardatz

oraindik ezer zehazteke dagoela gehitu du Muxikak.

BERTAKOIA BULTZATZEN

Bederlatzi abeltzainek eroandako ganadua, bi gaztagileren gazta eta hainbat artisau postu egon ziren

Eguraldiak ilundu egin zuen giroa; iaz baino jende gutxiago izan zen

ikusgai zapatuan Antzuolan; guztiak hala guztiak, herrikoak. Izan ere, horixe da feriarene helburuetako bat: bertako baserriar eta artisauari bultzada ematea. Jende askorik ez, baina multzo polita batu zen goizean feria ikusteko. Iaz jende gehiago ibili zela esan zigun Dina Muxikak, eta penatuta ere bazegoen, egindako eguraldiatik batik bat; izan ere, "euri tantak hasi dira eta horrek jende gutxiago etortzea eragiten du". Hala eta guztiz ere, sortutako giroa polita izan zen eta baserriarrek gustura bueltatu ziren etxera.

• ASKOTARIKOAK IZAN ZIREN FERIAN



LAGUNTZA ESKE. Halako ekitaldietan jende asko batzen da eta ohikoa izaten da GKEek zein bestelako taldeek mahaia jartzea: Alcerrek, Gipuzko Organo Emaileen elkarteak; Anelkarrek, Antzuolako gobernuz kanpoko erakundeak eta Kilometroak 2006 taldeak postu bana jarri zuten feria-gunean. Irudian Alcer elkartereko kideak.



EURITAKOIA LAGUN. Euriak, askorik egin ez zuen arren, apaldu egin zuen feria. Herritarrek euritakoa eskuan zutela ibili ziren ferian barrena. Saltzaileek ere plastiko handiak hartu eta, tarteka, estali egin behar izan zituzten postuak produktuak ez bustitzeko. Hala eta guztiz ere, giroa polita izan zen.



HARIZ EGINDAKOAK. Herriko artisauen artean bazen emakume talde batek jarritako hariz egindako lanen postua. Astean behin batzen dira -astelehenetan- udalak lagatuko egoitzan eta hantxe josten dute. Zapatuan jarritakoak ikusgai baino ez zituzten jarri, ez zeuden salgai. Prezioa jarritz gero zenbat balioko luke halako eskulan batek?

Hainbat oñatiarrek egin dute bat Ibaetako Agiriarekin

Ibaetako Dokumentua irakurri zuten herritarren aurrean 'Euskal presoak Euskal Herrira eskubide guztien jabe' lelopean

Goreti Elortza

Herritar ugari batu zen egubakoitzean Oñatiko plazan Ibaetako Dokumentuaren aurkezpena. Dokumentu horrek euskal presoan eskubideak bermatzea eta konponbidea sustatzea ditu helburu. Eta, hain zuzen, halaxe jakinarazi zuten dokumentuaren bultzatzaileek Oñatin.



JOSETXO ARANTZABAL

Ibaetako Dokumentua herriko plazan irakurri zuten.

SAKABANAKETAREN ONDORIOAK

Espainiako eta Frantziako gobernuak ezartzen duten sakabana-ketaren ondorioz, presoan gehiengo Euskal Herritik kanpoko espetxeetan dagoela gogorazi zuten -batez beste 724 kilometrorra daude-, eta presoan bizi baldintzak oso gogorrak direla. Bestalde, dagoeneko 16 lagun hil dira presoak bisitatzeko desplazamenduetan.

ATXIKIMENDU UGARI HERRIAN

Luzea da agiriarekin bat egin dutenen zerrenda, eta agiria sinatu dutenen eskaria zabala da: presoek tratatu duina jasotzeko eskubidea bermatzea, osasun eskubidea, komunikazio eskubidea, hizkuntza eskubidea, hezkuntza eskubidea...

Horren haritik, atxiki diren herriko erakunde, talde, mugimendu eta sindikatuek hileko azken egubakoitzetan Etxeratek deitutako bilkuretan parte hartzeko dei egin zuten; baita ekainaren 17an *Euskal Presoak Euskal Herrira* lelopean egingo den manifestaziorako ere.

Errekorra ezartzeko patinatzaileei dei egin diete

Ahalik eta patinatzaile-suge luzeena osatu nahi du zale talde batek hilaren 25ean Urkulun

Monika Belastegi

100 ezetz!!! Baietz 125 leloarekin, patinak oinetan dituztela eta jendearen borondatearekin errekor bat ezartzea du helburu patin-zale talde batek. Arizmendi ikastolaren ekimenez ahalik eta patinatzaile gehien batu nahi dute Urkulun, hilaren 25ean, 19:00etan.

Patinatzaile-sugea egin nahi dutela azaldu digute ekimenaren antolatzaileek: "Patinatzaile guztiek gerritik obatu eta ahalik eta suge luzeena osatu nahi dugu. Errekora pertsonala 100 lagunetan ezarri dugu, baina gehiago batu nahiko genituzke, hortik 100 ezetz!!! Baietz 125 leloa". Sugea osatu eta gero, 500 metroko ibil-

bidea betetzen saiatuko direla ere aurreratu dute. Opariak ere banatuko dituzte: 100 lagunendako motxilak, hain justu ere.

URTERO EGITEKO ASMOA

Lehen deialdi horrek jarraipena izatea nahi dute antolatzaileek; urtero egitea, hain justu, eta urte-tik urtera errekorra hausten joatea. Errekoren Guinness libu-

ruan sartzeko ideia ere ez dute baztertu. Estreinako deialdi horretan ez, baina datorren urteari begira Guinness liburuan sartzeko baldintzak aztertzeke asmoa dutela aurreratu dute.

Horrez gain, deialdira hurbilduko diren patinatzaileei eskaria ere egin nahi diete: aparkaleku arazoengatik autoak beteta eramantzatela, hain zuzen.



JOSETXO ARANTZABAL

Barikuan jende ugari batu zen Munibeko erromerian.

Epeletik berora egin du erromeri sortak Bergaran

Monika Belastegi

Barikuan egin zuten Bergaran *Munibe plazara dantzara!* izeneko erromeria sortako azkeneko erromeria sortako plaza elkartutako jendetzarekin, eta antolatzaileak oso pozik daude izan zuten erantzunarekin. Erromeria bukatu eta gero egindako herri afarian ere 200 bat lagun batu ziren eta bertso eskolako *Potoplost* emanaldiak barre ugari eragin zituen.

Orokorrean ere, "oso balorazio positiboa" egin dute antolatzaileek eta erromeria sortak "behetik gorako ibilbidea" egin duela esan zuten: "Lehen erromeriatik hirugarrenera egon den eboluzioa oso positiboa izan da: lasai samar hasi zena izugarritzko jaiarekin bukatu zen barikuan". Hala, datorren urtean zurren jarraipena izango duela gehitu zuten eta helburua "San Martin plaza betetzea" izan daitekeela aurreratu.

ARRASATEKO AL-ANDALUS ELKARTEA



JOSETXO ARANTZABAL

TXULETA EDERRAK JAN ZITUZTEN ZAPATUAN

Arrasateko Al-Andalus elkarteak 17. Kultura Astea ospatzeko azkeneko ekitaldiak egin ditu asteburuan. Ohi bezala ekitaldi jantziak asteburuan izan dute elkarteko kideek. Kantu, dantza eta musika ugari izan dute, baina jatekoari ere egin diote tartetxo. Zapatuan parrillada galanta egin zuten elkarte kanpoan: sekulako txuleta eta txorizoa erre eta jan zituzten.

Hemen
GARBIKETAK

Garbiketetan profesionalak gara

www.hemen-garbiketak.com

Intxaurtxueta 16 behea
ESKORIAMATZA
Tel.: 943 71 48 45
Faxa: 943 71 30 58

TOKI
ALAI
TABERNA

Karajilloetan espezializatua

Tel.: 943 71 47 29
ESKORIAMATZA

IRIARTE

Umeen denda
Helduen lentzeria

Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETAK

BASABE
jatetxea

Basabe bidea z/g
Tel.: 943 79 91 84
Aretxabaleta



JOSETXO ARANTZABAL

Ehunka herritarrek egin zuten bat hura askatzeko deiarekin.

Agirre askatzeko geldialdia deitu dute egubakoitzerako

Zapatuan ehunka lagun irten ziren Arrasaten kalera Jon Agirre presoaren baldintzarik gabeko askatasuna eskatzeko

Jon Berezibar

Ehunka lagunek egin zuten bat zapatu arratsaldean Jon Agirre preso aramaioarraren aldeko manifestazioarekin. Manifestari eta senideek Iturripe kiroldegian egin zuten bat horren ostean, ekitaldi politikoa egin eta senideei elkartasuna adierazteko. Egubakoitz honetarako geldialdiak ere iragarri ditu Askatasunak.

2001ean presoaren aldeko herri plataforma sortu zutenetik hona urtero egin dira mani-

festazioak eta oraindik ere aldarrikapen berekin jarraitzen dute. Jon Agirreren egoerak, ordea, okerrera egin du. 1981ean atxilotu eta gero, orain dela 10 urte bete zituen zigorraren hiru laurdenak, Euskal Herritik kanpo urte guztiak, 25 guztira. Osasun egoerari dagokionez, txarrerera besterik ez du egin, hipertentsio arteriala, diabetesa eta hainbat gaitz baskular direla medio, besteak beste. Egoera hori izanda, baldintzarik gabeko askatasuna eskatu zuten manifestazioan. Ekitaldi politi-

koan, une politikoari erreferentzia eginez, azpimarratu gura izan zuten "orain inoiz baino gehiago errespetatu behar direla preso politikoen eskubi-deak, konponbidea nahi bada".

Zapatuan egindako agerraldiarekin batera, datorren egubakoitzerako geldialdia egiteko eskatu zuen Askatasunak. Hain zuzen ere, 12:30etik 13:00etara izango da geldialdia eta ordu horretan elkarretaratzea egingo dute Arrasateko herriko plazan. Era berean, arratsaldean, hileroko azken egubakoitzero moduan, elkarretaratzea egingo dute presoaren alde. Hitzorduekin jarraituta, bihar, martitzena, Oinarrizko Hitzarmen Demokratikoaren aldeko manifestua aurkeztuko dute Arrasaten.

• ASENTZIO EGUNA, ELGETAN

HONDARTZAN BALEUDE, PUZGARRIKIN IBILI ZIREN LAKUTXOAN

Elgetako Gazte Asanbladak Asentzio Egun polita antolatu zuen atzo, domeka. Aurreko urteetan ez bezala, ez zen mezarik egon, baina osterantzean ohiko ekitaldiak izan zituzten. Hala ere, berrikuntza bat gehitu diote aurten go egitarauari: baltsa lehiaketa. Asanbladako bi taldek hartu zuten parte eta hondartzan baleude bezala, hantxe sartu ziren puzgarri eta guzti Asentzioko laku-txoan. Ez zuten puzgarriaren gainean denbora luzerik iraun, baina ikustera hurbildu zirenek barre, behintzat, gustura egin zuten. Datorren urtean, akaso, benetako baltsak egingo dituzte...



JOSETXO ARANTZABAL

Hilaren 30ean zozkatuko dituzte babestutako etxeak Elgetan

Monika Belastegi

Torrealdean egingo dituzten babes ofizialeko 20 etxebizitzak noiz zozkatuko diren erabaki dute dagoeneko. Hilaren 30ean, hain justu, izango da zozketa eguna, 19:00etan, Espaloia Kafe Antzokian.

Asteon eman du aditzera Udalak etxebizitzon zozketa-rako behin betiko zerrenda

–beheko aldeko hori, hain zuzen–, eta ikusgai jarri dute udaletxean eta www.elgeta.org helbidean. 141 lagunek osatzen dute zerrenda.

Horrez guztiaz gain, udal iturriek aurreratu dutenez, zerrenda horretan agertzen diren pertsonak etxean jasoko dute zozketa eguna, lekua eta ordua zehazten dituen jakinarazpena.

Behin betiko zerrenda

LEHENENGO TALDEA

1. Alkorta Irazabal Unai
2. Arantzabal Arrieta Iban
3. Arantzabal Atorrasagasti Jon Mirene
4. Arantzabal Garai Argoitz
5. Arantzabal Loiti Jokin
6. Arizmendiarrrieta Barrero Igor
7. Arizmendiarrrieta Barrero Gorka
8. Askasibar Zubizarreta Oskar
9. Azkarate Alberdi Miren Alazne
10. Barrutia Ule Joseba Julen
11. Beteta Peñalver Juan Carlos
12. Bolinaga Arantzabal Iraitz
13. Elkoro Sarasua Enrique
14. Elorriaga Royuela Alain
15. Erostarbe Tubilla Oxel
16. Errasti Ojaguren Idoia
17. Ezpeleta Gallastegi Geaxi
18. Garro Arrazola Unai
19. Irazabal Achucarro Maria Blanca
20. Irazabal Aranzeta Mikel
21. Jimenez Arrieta Aitzol
22. Larrañaga Iribecampos Maria Jesus
23. Litago Arin Gorka
24. Llamas Muñoz Ainhoa
25. Macarro Idigoras Aritz
26. Markiegi Ugalde Miren Garbiñe
27. Ormaetxea Saiz Agurtzane
28. Ormaetxea Saiz Jon
29. Romaneli Ruiz Mikel
30. Romero Rodriguez Dolores
31. Sarasketa Igarza Iraia
32. Ubera Arantzeta Xabier
33. Unzetabarrenetxea Gallego Andoitz
34. Zabala Arbulu Itziar

BIGARREN TALDEA

35. Askasibar Errasti Ana
36. Calleja Ruiz Julio
37. Goenaga Egia Ane

HIRUGARREN TALDEA

38. Aarafa Abdelkrim
39. Agirremomezhorta Etxebarria Jaione
40. Agirrekomezhorta Etxebarria M.S.
41. Agirrezabal San Miguel Leire
42. Ajuariagerra Lafuente Ander
43. Alberdi Altuna Ignacio
44. Aldalur Ugarteburu Aitor
45. Aliende Calle Begoña
46. Altuna Aranberri Zigor
47. Altuna Leyasristi Garikoitz
48. Alustiza Intxausti Andoni
49. Alvarez Esperanza Dolores
50. Arakistain Aranda Mireia
51. Arantzabal Azpitarte Xabier
52. Arzelus Azkarreta Aitor
53. Aristondo Gorosabel Victor Manuel
54. Arregi Guridi Nuria
55. Arrondo Zabala Ainhoa
56. Artetxe Samaniego Eneko
57. Astarloa Aierbe Daniel
58. Astigarraga Penedo Aritz
59. Azurmendi Apaolaza Igone
60. Baladron Morais Alexander
61. Bastida Altxibar Iñaki
62. Bastida Altxibar Maite
63. Bauza Madariaga Igor
64. Bengoa Iturbe Ainhoa
65. Berezibar Muruamendiaraz Nora
66. Bergara Bercianos Zuriñe
67. Berraondo Laskurain Ander
68. Blanco Vilda Virginia

69. Bolinaga Hernandez Arkaitz
70. Bollain Ocamica Ivan
71. Caballero Tabares Juan
72. Castro Casas Aitor
73. Eguren Carmona Eneritz
74. Elkorbereziabar Albeniz Ander
75. Etxeberria Azpuri Luis
76. Familiar Etxebarria Amaia
77. Fernandez Rivero Javier
78. Fernandez Virumbrales Mikel
79. Franisco Barcenasa Lorena
80. Garate Unanue Jose Luis
81. Garai Gallastegi Josune
82. Garcia Iraolagoitia Iñigo
83. Garde Lejardi Asier
84. Gardoki Ibarra Oihana
85. Gimeno Vesga Nerea
86. Gomez Aldai Marta
87. Gonzalez Lekunberri Borja
88. Gorriti Kortaberria Kepa
89. Gerenabarrena Osa Aitor
90. Hernandez Orozco Elisa
91. Herrero Garcia Roberto
92. Isturiz Elkoro Ana
93. Isturiz Elkoro Asier
94. Larrañaga Guillen Judith
95. Larrañaga Pontones Igor
96. Larrea Arana Mireia Alazne
97. Larreategi Agirregomezhorta Marcos
98. Lopez Lopez Alexander
99. Lopez Reta Eduardo
100. Lopez Uribeetxeberria Juan Antonio
101. Lopez Vitoria Alberto
102. Loyola Zubia Anaitz
103. Lueongo Gonzalez Jose Luis
104. Madariaga Bauza Oskar
105. Markina Igarza Aitor
106. Markina Igarza Gotzon
107. Matilla Gavillan Mari Carmen
108. Mendizabal Barrera Jakue
109. Mendizabal Gorrotxategi Arkaitz
110. Moreno Aranburu Eduardo
111. Moya Oturriza Alfonso
112. Mozos Aranguren Miren
113. Muñoz Arana Aritz
114. Murgizu Ruiz de Azua Mainer
115. Nogueiras Carballo Juan Carlos
116. Odriozola Diaz Sorkunde
117. Ogiza Totorikaguena Aitor
118. Olabarria Artolazabal Erlantz
119. Ovelar Muñoz Victoriano
120. Pesquera Blazquez Oscar
121. Porcel Exposito Adela
122. Prieto Beitia Laura
123. Prieto Conde Rafael
124. Prieto Hernandez Rafael
125. Puente Urra Virginia
126. Quiñones Garcia Roberto
127. Ruiz Pascual Eider
128. Sanchez Cantero Joseba
129. Sancho Ortiz de Luzuriaga Asier
130. Santana Martin Sergio
131. Sendino Rozadilla Igor
132. Ugarte Lasagabaster Amaia
133. Ugarteburu Amutegi Ibon
134. Uzuriaga Mendizabal Borja
135. Uzuriaga Olaortua Iratxe
136. Vazquez Montaña Raul
137. Velarde Cepeda Jose Manuel
138. Zabala Elorza Xabier
139. Zamacola Ereñaga Ane
140. Zhiri Mesbahi Reduan
141. Zuazua Iasa Alexander

PEUGEOT 207 BERRIA

Ez da auto hutsa, zerbait zirraragarriagoa da.



ZIORLA AUTOAK

PEUGEOT

ARRASATE

Musakola auzoa 21 (Roneo ondoan) ARRASATE Tel: 943 77 01 44

GRUPO ETORMOBIL

ORAIN ESKAINTZA BEREZIA

berriaren harpidedun egiten bazara...

aukeratu opari bat



mp3 irakurgailu digitala

Kamera digitala



deitu orain

943 30 43 45



berria

ERDI AROKO AZOKA ARRASATEN | FAMILIA OSOARI ZUZENDUTAKO EGITARUA



JOSETXO ARANTZABAL

Azokaz gain, kaleko ikuskizunek ere jende kopuru polita erakartzea lortu zuten.

Hirugarren urtean finkatu egin dela erakutsi du azokak

Jendearen erantzun onarekin eta eskaintza osatuta, badirudi azokak indarra hartu duela aurtengoan

Asteleheneko Goienkaria

Aurreko urteetako arrakasta errepikatzeko asmoarekin ireki zuten zapatuan aurtengo Arrasateko Erdi Aroko azoka, hirugarrena dagoeneko. Bai zapaturako zein domekarako egitarau mardula gertatu zuten antolatzailleek. Antza, saltzaileek hala azalduta, gero eta sona handiagoa hartzen hasi da Arrasateko azoka. Madrildik etorritako artisaubatek esan bezala, "Arrasatekoarengatik ondo hitz egiten entzun eta lekua ezagutu barik" etorri da aurten. Balmasedan ere

pasa den asteburuan izan da Erdi Aroko azoka, baina saltzaile horrek azaldutakoaren arabera "askok aurten Arrasatera etortzea erabaki dute, aurreko urteetan izandako harrera ikusita". Aurten 85 saltoki ipini dituzte artisautza, goxoak, janari eta pitxiek. Gainera, herriko artisaubatek partaidetza bermatu gura izan dute antolatzailleek eta herriko bost postu egon ziren. Aurten, lehenengo aldiz, ahalegin berezia egin dute Udaletik euskarazko presentzia izan dezan eta ipuin kontalariak eta abar euskaraz ere egoteaz gain, azokako kartelak eta

azalpen orriak euskaratu egin dituzte. Oro har, bai ikuskizunetan zein kaleetan zehar jende asko ibili da, baina saltzaileek aipatutakoaren arabera, salmentak ez dira izugarriak izan aurtengoan. Hala eta guztiz ere, jateko postuak gehienbat beteta egon ziren eguneko ordu nagusietan.

BERE LEKUTXOA EGITEN

Bada, inguruko Erdi Aroko zirkuituan Arrasatekoa bere lekutxo egiten dabilela ematen du. Saltzaile askok oraingoa Arrasate aukeratu ei dute eta aurreko urteetako jendetzarik ez ibili arren, joan-etorria etengabea izan da egun guztian zehar. Umeei arreta berezia eskaini zaie aurten, Seberreko gunean eta ikuskizunei dagokienez. Hala, egitarau osatuagoa izan da aurten, familia guztiarendako pentsatutakoa.

• BATZUEK LAN, BESTEEK GOZATU



ATECE ELKARTEKO KIDEAK | ARRASATE

"Aukera ona iruditu zaigu elkartearentzat dirua ateratzeko, ez dugu-eta beste dirulaguntzarik"

Erdi Aroko azokan postua jarri duten lehen aldia izan da aurtengoa. Atece elkarte burmuineko gaitza dutenei laguntzeko sortutako elkarte da. "Aukera ona iruditu zaigu postua jarri eta dirua ateratzeko, ez baitigute laguntza handirik ematen", esan digu kideetako batek. Pintxoak eta edariak saldu dituzte euren postuan. Azokak jende nahikoa erakarri duen arren, espero zutena baino gutxiago saldu dutela esan digute. Hala eta guztiz ere, datorren urtean ere ipiniko dute postua, aukera emanez gero. Orokorrean gustura aritu direla esan digute.



LAGUN KOADRILA | ARRASATE

"Animaliak gustatu zaizkigu gehien, basurdeak, untxiak eta astoak, ez ditugulako egunero ikusten"

Arrasateko hiru mutil hauek oso gustuko izan dute Erdi Aroko azoka. Iaz bezala gurasoekin hurbildu dira asteburuan eta erosketak batzuk ere egin dituzte. Gehien gustatu zaizkien postuak animalienak izan dira, eta pozik ibili dira guztiei zirikatzen. "Zer bait jokotan ere parte hartu dugu eta postuak ikusten baino hobeto pasatu dugu". Datorren urtean ere gerturatuko direla esan digute, baina joko gehiago espero dutela.

• JATEKOA, EDATEKOA, LARRUA, PITXIAK, ANTZERKIA, IPUIN KONTALARIAK, MUSIKA... ZER EZ ZEN EGON ARRASATEKO KALEETAN!



DESERTUKO KARABANA. Umeendako propio pentsatutako gauza ugari izan ditu azokak. Erdi Aroko jolasak izan dituzte, buztinarekin ontziak egin ahal izan zituzten, sugeak ikusi eta ipuinak entzun -euskaraz, gainera-. Baina denetan gustukoaren astoan ibiltzea izan dute.



ASKOTARIKO POSTUAK. Askotariko postuak batu ditu azokak, artisaubate horietako asko. Bitxigile, larrugile, edota jostailugileak ikusi ahal izan genituen. Gainera, azokak berak ekarritakoez gain, Arrasateko bost artisaubatek ere saltokia jarri zuten azokan.



SUGEA, IZARRETAKO BAT. Animaliak izan dira Erdi Aroko azokaren protagonistetako bat. Sugeak, batik batik. Suge-sorgintzaile batek kalean gora eta behera erabili du asteburuan irudiko sugetzar hori. Gehienei errespetua eman die, baina ezin ukitzeko tentazioari eutsi...

Debagoieneko WEBGUNEAK



AHOLKULARITZAK
ESTRADOS
www.consultoria.estrados.com

ANTZINAKO ALTZARIAK
ZUMADIA
www.zumadia.com

AKADEMIAK
BASTIDA
www.bastida.es

ALTZARIAK ETA APAINKETAK
BZ-SISTEMAS
www.goiena.net/blogak/BZ-sistemas

MARRUBI
www.marrubi.com

ARGAZKIAK/ARGAZKILARIAK
MARIA JESUS
www.mjargazki.com

AROTZTEGIAK
ARREGI
www.goiena.net/blogak/arregi

AZKARATE
www.goiena.net/blogak/azkarate

ASEGURUAK
BRIZ ASEGURUAK
www.goiena.net/blogak/briz-aseguruak

WINTERTHUR
www.winterthur.es

AUTOEN GARAJEAK/KONPONKETA
AUTOS ARETXA S.L
www.autosaretxa.com

AUTOS RIBEGOLA –BMW-
www.autos-ribegola.com

GALLASTEGI MOTOR SPORT
www.goiena.net/blogak/gallastegi

AUTO-KONTZESIONARIOAK
4QUATTRO 4
www.goiena.net/blogak/4quattro4

BIDAIA AGENTZIAK
BARCELO
www.barceloviajes.com

BITXITEGI TAILERRA
OSCAR VITORIA
www.goiena.net/blogak/vitoria

ELEKTRIZITATE INSTALAZIOAK
ARETXARGI
www.goiena.net/blogak/aretxargi

ELEKTRIZITATE MATERIALAK
SETALDE
www.setalde.com

ERAIKUNTZAK
CONSTRULAN
www.construlansl.com

ERROTULOAK
PANDO
www.goiena.net/blogak/pando

ESTETIKA ZENTROAK
ANGELA
www.angelaestetika.net

GUZTIZ EDER
www.goiena.net/blogak/guztizeder

LILURA
www.lilura.com

MAIER
www.goiena.net/blogak/richimaier

GARBIKETAK
HEMEN
www.hemen-garbiaketak.com

GIMNASIOAK
IRUDI SPORT
www.goiena.net/blogak/irudisport

HAUR PARKEAK
OKIPARK S.L.
www.goiena.net/blogak/okipark

HESTEBETEA
URDEKI
www.goiena.net/blogak/urdeki

HIZKUNTZA AKADEMIKAK
CIM-OÑATI BAI & BY
www.cim-idiomas.com

HOTELAK
HOTEL MONDRAGON
www.hotelmondragon.com

ILE APAINDEGIAK
RICHI
www.goiena.net/blogak/richimaier

INFORMATIKA
DCA COMPANY
www.dcacompany.com

INGENIARI GEOLOGIKOAK
HARRILUR
www.harrilur.com

INMOBILIARIAK
ANBOTO
www.inmoarrasate.com

ARRIETA & SAN MIGUEL
www.arrietasanmiguel.com

KOROSTI
www.inmokorosti-com

UDALATX
www.goiena.net/blogak/udalatx

JANARIAK
GERTU
www.goiena.net/blogak/gertu

JANTZI DENDAK
UDALAITZ
www.goiena.net/blogak/udalaitz

JATETXEAK
BASTER ALDE
www.baster-alde.com

DRAGON ORIENTAL
www.goiena.net/blogak/dragon-oriental

DUKIENA
www.goiena.net/blogak/dukiena

MAULANDA
www.goiena.net/blogak/maulanda

LANTEGI ETA TAILERRAK
TALLERES CARPINS S.L.
www.carpinsa.com

LEIHOAK
ARGI-PLASTIK
www.goiena.net/blogak/argi-plastik

EGO
www.goiena.net/blogak/ego

LORADENDAK
EKILORE
www.goiena.net/blogak/ekilore

MAYTE
www.goiena.net/blogak/mayte

OINETAKOAK
KORO ZABALETA
www.goiena.net/blogak/korozabaleta

OPARIAK
MERKEOPARI
www.goiena.net/blogak/merkeopari

OPTIKAK
MULTIOPTICAS LARRAÑAGA
www.goiena.net/blogak/multiopticas

OSTALARITZA
GARAIA OSTALARITZA HORNIKETAK
www.goiena.net/blogak/garaia

PUBLIZITATE AGENTZIAK
ADOX
www.adoxnet.com

SKATE&SNOW
LAINO
www.laino.info

SUKALDEKO ALTZARIAK
BASTIDA SUKALDEAK
www.goiena.net/blogak/bastida

TABERNAK
EZKUTU
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly

GUREA
www.goiena.net/blogak/gurea

ORLY
www.goiena.net/blogak/ezkutuorly

TATUAJEAK
GANESHA
www.goiena.net/blogak/ganasha

TAXIAK
GORKA GARAI
www.goiena.net/blogak/gorkataxi

UDAL ZERBITZUAK
GAZTEEN INFORMAZIO BULEGOA
www.aizue.com

ZERBITZU DIGITALAK
ATAI
www.goiena.net/blogak/atai

ZUR LANTZAILEA
ELEJALDE
www.goiena.net/blogak/elejalde

Bisita ezazu:
www.goiena.net/merkatua

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu 943 71 23 91 zenbakira.

EUSKAREN EGUNA | HERRITARREK EGINDAKO LANA AZPIMARRATU DUTE ANTOLATZAILEEK, LORAMENDI EUSKARA ELKARTEAK



JOSETXO ARANTZABAL

Leizarra Musika Eskolako trikitilariak alaitu zituzten herriko kaleak goizean. Guztiek zuten zapia lepoan.

Doneztebe, Aretxabaleta eta euskara: hirurak bat

Euskararen Asteari amaiera emateko Euskararen Eguna alaia ospatu zuten zapatuan

Monika Belastegi

"Eskerrak eman nahi dizkiegu herritarrei jaia antolatzeko eman diguten laguntza guztiarengatik eta baita ekitaldietan izan duten parte-hartzearengatik ere". Hori xe izan zen zapatuan Loramendiko kideek beste ezeren aurretik nabarmendu nahi izan zutena. "Halako jaia antolatzea lan handia da, eta herritarrek egin dute posible guztia hain ondo ateratzea", gehitu zuten.

Urteak darama elkarteak Euskararen Astea antolatzen, eta, asteari amaiera emateko, ohi beza-

la, Euskararen Eguna egin zuten zapatuan. Aurtengo leloari dago-kionez, *Eitteko prest!* aukeratu zuten, iazko bera, hain justu.

GONBIDATU BEREZIAK

Gonbidatu bereziak izan zituen zapatuan Euskararen Eguna: doneztebar koadrila, hain justu. Loramendik elkartrukea antolatu zuen Doneztebeko Burrunba Kultura Elkartearekin eta zapatuko jaia aprobetxatu nahi izan zuten gurera etorri eta ondo pasatzeko.

Hamaika lagun etorri ziren, eta ez esku-hutsik. Hango gazta

ekarri zuten eta dastatzeko jarri zuten Aretxabaletako baserrietako gaztarekin batera Muru-Alde aurrean.

DONEZTEBARRAK IRABAZLE

Ikusmin handia eragin zuen ekitaldietako bat bazkalosteko Aretxabaleta-Doneztebe desafioa izan zen. Animalia bikotea aurkitu, aulki jokoa, sokatira eta antzeko zappi bat joko izan ziren norgehiagokaren oinarri, eta erratz jaurtiketan izan ezik -iaz bezala Iker Urkia Loramendiko lehen-dakariak irabazi zuen- doneztebarrek egurra eman zieten aretxabaletarrei. Galtzaile onen moduan, Iker Urkiak eman zien aretxabaletarren izenean saria: bi herrien izena eta zapatuko data brodatuta dituen bandera.

Aretxabaletarrak uztailean joango ei dira Doneztebera.

• DONEZTEBARRAK ZEIN BERTAKOAK POZIK



GAZTE BURRUNBA KULTURA ELKARTEA | DONEZTEBE

"Aretxabaletarrak uztail bukaeran gure elkartearen eguna ospatzera gonbidatzen ditugu, Doneztebera"

Loramendi Euskara Elkartearekin adostutako elkartrukea dela eta etorri ziren Doneztebekoak gurera. Hamaika lagun etorri ziren eta gehienak aurretik Aretxabaletan egon bakoak ziren: "Pozik etorri gara", esan ziguten, "garrantzitsua iruditzen zaigu halako elkartrukeak antolatzea; beste herri batzuk ezagutzeko aukera ematen du, jende berria ezagutzeko eta herriotan egiten diren ekitaldietan parte hartzeko", azaldu zuten. Doneztebera uztail bukaeran joateko gonbita egin diete aretxabaletarrei: "Gure elkartearen eguna ospatzera gonbidatu nahi ditugu".



IRATI, NAGORE ETA JAIONE | ARETXABALETA

"Euskararen eguna asko gustatzen zaigu; lepoko zapi laranja, batik bat"

Euskararen Eguna gustuko du hirukote horrek; "lepoko zapi laranja", batik bat. Goizean izandako ekitaldietan parte hartu ez, baina guztiak ikusi zituztela aitortu zuten. Dena den, eskolan, Euskararen Astearen harira, bertso txapelketa egin zutela aurreratu ziguten eta han baietz, han parte hartu zutela esan ziguten. Bestalde, euskaraz berba egitea garrantzitsua dela diote; eurek, behintzat, halaxe egiten dute.

• GOGORA EKARTZEKO ASKO EMAN ZITUEN EGUNAK



DONEZTEBEKO GAZTA. Doneztebarrak ez ziren esku-hutsik etorri. Euren herriko gazta ekarri zuten eta herritarrek dastatzeko jarri zuten Aretxabaletako baserrietako gaztarekin batera Muru-Alde aurrean. Sagardoarekin lagunduta gustura asko jan zuten herritarrek.



BAZKARIA PLAZAN. Plazako arkupeetan egin zuten babarrun-jana. 150 bat lagun batu ziren eta esan digutenez oso gozo zeuden Uratz-Alde, Muru-Alde, Urbaltz eta Batzokiak prestatutako babarrunak. Kafea eta kopatxoa ere izan zituzten bazkalondorako.



ESKOLA PROPIOA. Iluntze aldera, pailazoen emanaldia eta Larrain dantza saioa bukatu eta gero kalejira egin zuten hainbat herritarrek, EHEk eta EHBek deituta. *Euskal Herriak bere eskola* egin zuten aldarri kalejiran batutakoek.

Albiste izango da

BERGARA | HITZARMEN BIDEZ ITZULIKO DITU

Eskribautzen dokumentazioa bueltatuko du Bergarako Udalak

Eguaztenean sinatuko du Bergarako Udalak eskribautzen dokumentazioa bueltatzeko hitzarmena Eibar, Soraluze eta Mutrikuko udalekin. Eskribautzen dokumentazioak eskribauak bere eguneroko lanean sortutako agiriak jasotzen ditu. 316 kaxatan daude bilduta aipatu dokumentuak, 6.403 erregistro biltzen ditu eta 40 metroko luzera izango luke dokumentuak bata bestearen jarraian jarriz gero. Dokumentazioa 1512tik 1866ra bitartekoa da. Hitzarmena Bergarako Udaleko osoko bilkura aretoan sinatuko dute, 12:30ean.

DEBAGOIENA | OHIKO LEKUETAN BATUKO DUTE

Bihar, martitzena, batuko dute landa inguruetako plastikoa

Bihar, martitzena, batuko du Debagoieneko Landa Garapenen Elkartek baserri inguruetan sortutako plastikoa. Ohiko ordu eta lekuetan laga beharko da eta batuko duten plastikoa da: siloa estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza, belar boletan erabiltzen den plastiko beltza, berotegietan eta ortuan lurra estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza eta berotegiko plastiko zuria. Horrekin batera, zerbitzuko arduradunek ohartarazi dute plastikozko soka beltzak ez dituztela batuko.

Bilketa lekuren bat aldatzea nahi izanez gero, berriz, 943 76 25 47 telefonora zenbakira dei daiteke. Hurrengo plastiko batze eguna uztailaren 18a izango da.

DEBAGOIENA | IZENEMATEA ZABALIK DAGO

Topaguneak udalekuak antolatu ditu 2 eta 17 urte artekoentzat

Udaz gozatzeko hamaika arrazoi eta mila aukera! leloarekin aurkeztu du Topaguneak bere udako eskaintza. 2 eta 17 urte bitarteko gazteei zuzenduta daude aipatu udalekuak, eta Euskal Herriko hemeretzi herritan kokatuko dira; besteak beste, Arrasate, Bergara eta Oñatin. Izenemate epea zabalik dago eta horretarako herri bakoitzeko euskara elkartera jo daiteke.

Duela 19 urte antolatu zuen lehen aldiz Topaguneak udako eskaintza. Hamaika dira Topaguneak antolatuko udalekuen ezauzgarriak: eskaintza planifikatua eta jarraitua, herritartasunean eta berdintasunean oinarritutakoa, sormenezkoa, malgua, kalitatezkoa, askotarikoa, tokian tokikoa eta euskararen eremu osoa hartzen duena eta integraziailea.

OÑATI | MUNDUMIRA JAIA DELA-ETA

Eguaztenean itxiko dute plazako aparkalekua ekainaren 21era arte

Munduko kulturen festa, Euskal Eskola publikoaren jaia eta Gorputzi eguneko barrakak direla-eta, plazako aparkalekua itxi egingo dute eguaztenetik aurrera. Hilabetez izango da itxita, ekainaren 21era arte. Bitartean, autoak Olaiturri, Ibarra eta osasun etxeko aparkalekuetan uzteko gomendioa egin du Udalak.

Mundumira jaia dela eta, berriz, asteburuan herriko hainbat kale itxi egingo dituzte; Unibertsitate etorbidea egubakoitzean arratsaldeko 6etarako itxiko dute, eta Zahor, Berezaio, ETEO, Ulma eta posta zerbitzu inguruko aparkalekuak erabili beharko dira.

ARRASATE | 19:00ETAN DA HITZORDUA, PORTALOIAN

Poteo euskalduna deitu dute Zahar Berrikoek hilaren 25erako

"Mingaina askatzeko eta euskararen erabilera areagotzeko teknika ona da poteoa; euskara ikasleek lotsak galdu eta beldurrak uxatzen dituzte, lagun arteko giro atsegina sortuz gero". Halaxe diote Arrasateko Zahar Berri proiektuko kideek, eta giro atsegin horren bila poteo euskalduna antolatu dute hilaren 25erako herriko euskaltegiekin batera.

Helburua da "euskara ikasleek eta euskaldun zaharrek elkarrekin pote batzuk hartzea". Deialdiarekin bat egin nahi duenak hilaren 25ean Portaloira azaldu besterik ez du, 19:00etan. Informazio gehiagorako deitu AEDra (943 77 12 28).

Hitzorduak



LEHEN SOROSPEN ETA SOROSLE IKASTAROA EMANGO DU DYA-K | Bergaran emango dute maiatzaren 29tik ekainaren 20ra bitartean

Lehen sorospen eta sorosle ikastaroa antolatu du DYA Gipuzkoak. Maiatzaren 29an hasiko da eta hiru aste iraungo du, ekainaren 20ra arte. Bergarako kultura etxean emango dute, astelehenetik egubakoitzera, 19:30etik 21:30era. Edozeini dago zabalik ikastaroa, eta ez da aurre-jakintzarik behar. Egu-

neroko arrisku egoerei erantzuteko teknikak irakatsiko dituzte. Ikastaroa bukatu eta DYaren sorosle titulua atera gura dutenek horretarako probak egiteko aukera izango dute. Ikastaroan izena emateko, deitu 943 46 46 22 telefonora. 75 euro da matrikula.

ANTZUOLA |

• 75ean jaiotakoek kinto afaria egingo dute

Urte hartan jaiotakoek batera afalduko dute ekainaren 10ean Arin jatetxean. Izenematea, 943 78 70 36 telefonon.

ARETXABALETA |

• Udalekuetan begirale izan gura dutenei dei egiten diete

Udalak antolatu dituen udalekuetan begirale lan egin gura dutenek curriculumak bidali behar dute kultura etxera, postaz edo e-postaz (kultura@aretxabaleta.net). Zuzendaritzan parte hartu gura dutenek hala adierazi beharko dute curriculumean.

ARRASATE |

• Transexualitatearen gaineko hitzaldia egingo dute

La transexualidad y presiones sociales de género delako hitzaldia egingo dute Madrilgo eta Bartzelonako transexual banak hilaren 26an, egubakoitza, udaltxeko osoko bilkuren aretoan, 19:00etan.

• Sahararez eta Oporrak Bakean programaz hitzaldia

Saharar errefuxiatuen kanpalekuez eta Oporrak Bakean programaz berba egingo du Fronte Polisarioko kide batek gaur, astelehena, Monterronen, 18:00etan. Udalak antolatu du hitzaldia.

• Poteo euskalduna antolatu du Zahar Berri

Poteo euskalduna antolatu dute Zahar Berri eta euskaltegiek maiatzaren 25erako, eguna, Portaloitik hasita, 19:00etan.

• Arrasate Musikalen izena emateko epea zabaldu dute

Lau urtetik gorako hezkuntza helduendako ere bai, instrumentu-hezkuntza eta dantza eskolak daude. 17:00-20:00 da idazkaritza ordutegia.

BERGARA |

• Musika eskolan matrikula egin daiteke

Eskolan bertan egin behar da matrikula. Eskaintzen dira instrumentu musikalak, aurrehizkuntza eta hizkuntza musika, biolina, musika hezkuntza berezia, gitarra eta baxu elektronikoa eta taldeetan parte hartzeko aukera.

• Digestioaren gaineko hitzaldia San Joxepen

Digestio zoriontsuak edo digestio astunak delako hitzaldia egingo du Joseba Muñozek gaur, astelehena, San Joxepen, 17:00etan.

DEBAGOIENA |

• Aldi baterako egonaldiak eska daitezke Aita Mennin

Aita Menni egoitzan aldi baterako egonaldia eska daiteke. Pertsona nagusiekin bizi diren

eta haiek zaintzen dituzten familiei dago zuzenduta deialdia, familiak oporrak hartzeko aukera izan dezan. Maiatzaren 31 da izena emateko mugaeguna.

• Euskal Herria Zuzenean jaialdian laguntza behar dute

Euskal Herria Zuzenean jaialdian laguntzaile joan nahi dutenek izena eman dezakete Topagunean (94 621 51 16 edo 618 61 52 88 dira telefonoak).

• Baserrian erabilitako plastikoak jasoko dituzte

Baserrian erabilitako plastikoak jasoko dituzte bihar, martitzena, ohiko bilketa lekuetan. Argibideak: 943 76 25 47.

• Aramaioko ibarrean mendi martxa egingo dute

Aramaioko ibarrari bira emateko Aiba! mendi martxa antolatu du Besaidek. Argibideak: www.aiba.besaide.org.

OÑATI |

• IT txartela ateratzeko azterketa egin daiteke

Informazioaren Teknologien erabiltzaile agiria ateratzeko azterketa egingo dute egubakoitzean, KZgunean, 16:30ean.

• Chi Kung eta Tai Chi

ikastaro trinkoa emango dute Bi diziplina horien gaineko ikastaroa emango du Estibaliz Diez-Caballerok hilaren 27an. Argibideak: 943 78 36 60 edo 635 72 08 36 telefonoetan.

Iritziak



Isilpekoak

943 25 05 02
goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

• Bergararako plazan, autoak herritarren ordez

Begarako irakurle batek plazan egoten den auto pilaketarekin "kokoteraino" dagoela jakinarazi digu. Haren esanetan, "ia ezinezkoa da Bergarako plazatik trankil igarotzea, autoz lepo egoten delako". Ulergarria iruditzen zaio aparkaleku faltan autoak plazan utzi ahal izatea, baina, era berean, iruditzen zaio "lehentasuna autoei ematen zaiela, herritarrei sortzen dizkieten eragozpenak inondik inora kontuan hartu barik". Trabak askotan gehiegizkoak izaten direla dio irakurle horrek, eta "herrian autoek lehentasun osoa" daukatela.

• Tiburon kioskoa arriskuan?

Arrasaten Biterin egiten dabilizan aparkalekuen gainean zerbitzueterako hainbat eraikin egingo ditu Udalak, tartean prentsa kiosko bat. Kiosko hori lehiaketa publikora ateratzeko asmoa iragarri du Udalak eta garbi utzi du inguru berean ez duela bi kiosko egoten utziko. Honela, Balantzategitarrek daukaten kioskoa galtzeko arriskuan daudela ohartarazi digu irakurle batek. Haren esanetan, ez da batere bidezkoa 30 urtez zerbitzu hori ematen egon eta gero, kiosko berria lehiaketa publikora atera eta betidanik izan dutenek galtzeko arriskua izatea. Irakurleak ez ei du ulertzen Udalaren jarrera hori.

• Aretxabaletarrei txaloak jaietan laguntzeagatik

Aurreko astean Ojala Zelain frogatu eta oraingoan Euskararen Egunean baieztatu den moduan, aretxabaletarrek herri partaidetzaren bitartez sekulako giroa sortzen dutela agerian geratu da. Euskararen Eguneko antolatzaileek eskerrak eman dizkiete herritarrei emandako laguntzeagatik, eta haiei ere joango dira oraingo asteko txaloak.

Sarean harrapatuta

Segurtasun faltarik igartzen duzu kalean?

Azkenaldian lapurreta asko izan dira ibarreko zenbait lekutan eta aste bukaeretakako borrokak ere ohiko bihurtu dira aspaldian. Lapurreta eta borroka horiek izua eta segurtasun falta eragin dute zenbait

herritarrengan, batez ere Arrasate aldean. Herritarren iritzia jakin nahi izan dute aste honetan *Goiena.net* webgunean eta gaiaren gainean galdetu dute: segurtasun faltarik igartzen duzu? Hemen iritzi batzuk.

SEGURTASUN GUTXI ETA UDALTZAIN ASKO

Gero eta segurtasun gutxiago dago herrian. Hainbeste udaltzain daude eta non sartzen dira denak?

Miren / www.goiena.net

LAPURRETAK BAINO LARRIAGOAK BADAUDE

Lapurreta asko egoten dira eta ez da ezer egiten. Egiten diren bakarrak trafikokontrolak, debekuak, isun gehiago, prezioak garestitu eta gu kaltetzen gaituzten lege berriak dira. Baina lapurreten aurrean ezer ez, geroz eta polizia gehiago, udaltzain gehiago, eta kontxo! lapurreta gehiago? Utz ditzatela denek alferreko eginkizunak eta egin dezatela behingoz zerbait probetxuzkoa!

Egia / www.goiena.net

BELDURRA IZATEN DUT ASKOTAN

Segurtasun falta baino beldurra izaten dut askotan. Izan ere entzun dut batzuei autoa lapurtu dietela etxeko atean. Ondoren lapurretak egiteko erabili eta edozein herritan agertzen dela. Hori zortea baduzu; beste batzuetan autoa kiskalita ere agertu zaie. Horregatik nire autoa etxe aurrean aparkatzen dudanean beldur pixka bat izaten dut. Nork

daki zuri ez zaizula tokatuko? Nik ez daukat garajerik eta, beraz, ezin dut autoa babestu. Hemen-dik eskatu nahi diet Debagoieneko udaltzain edota ertzainei gauean ere ibili daitezela herria zaintzen eta ondo egin dezatela.

Autoak / www.goiena.net

UDALTZAINAK BEHAR DIRA GAUEZ ERE

Nik udaltzainak edonon ikusten ditut, Arrasaten gutxienez 16 daude. Nik ez dakit gauez lan egiten duten baina egin beharko luke-

te herria zaintzeko eta herritarrok babesteko. Auto edota komertzioetako lapurretak gauez gertatzen dira eta, beraz, hori jakinda arrazoi gehiago dute udaltzainek gauez patruilan ibiltzeko. Egunez edonon daude baina gauez? Non sartzen dira? Isun gutxiago jarri eta zaindu hobeto herria eta herritarrek!

Jone / www.goiena.net

GAUEKO LISKARRAK KONTROLATU BEHAR

Aspaldian bolo-bolo dabilen kontua da Latin Kingena. Nik momentuz ez ditut ikusi baina itxura denez, hainbat liskar eta borroka eragin dituzte Arrasate aldean. Beldurrik ez daukat baina errespetu handia ematen dute. Nork kontrolatu behar ditu gauean eta goizaldean gertatzen diren liskarrak? Norbaiten lana izango da hori, ezta?

Latin king / www.goiena.net

ALDATU EGIN DIRA LISKARRAK, EZ GEHITU

Nik ez dut uste hainbesterako denik. Lasai ibiltzen naiz ni kalean. Beti egon dira lapurretak, borrokak eta abarrak Arrasate aldean eta ez da oraingo gauza. Kontua da aldatu egin dela lapurretan egin eta borrokan egiteko modua.

Lapurra / www.goiena.net

www.goiena.net

Aspaldian lapurreta asko izan dira. Segurtasun faltarik nabaritu duzu?



Zure iritzia eman nahi baduzu jo www.goiena.net webgunera

Halaxe erantzun digute

Interneten nazioarteko eguna izan berri da. Dagoeneko eguneroko tresna bilakatu dela uste duzue



JOSE MENDEZ | BERGARAKO KZGUNEA

Gero eta jende nagusi gehiago gerturatu hasi da eta hori da orain arte gehien kostatu zaion biztanleriaren zatia. Tresna berria da eta oraindik sartzeko prozesuan dago; beraz, egunerokoa ez da. Hala ere, jendeak gaur egun oso ohiko moduan ikusten du, beldurrik ez dago.



MAITE REMENTERIA | CODESYNTAX ENPRESA

Lanean gabiltzanok etengabe erabiltzen dugun arren, ez dut uste ohiko tresna moduan erabiltzen denik oraindik ere. Erabilpen asko dauka egunerokorako -erosketak, adibidez-, eta, horren harira, ez da oraindik guztiz normalizatu Interneten erabilera, nahiz eta asko zabaldu den.



USOA AGIRRE | 'GOIENA.NET'

Geroz eta normalizatuagoa dago, agerikoa da hori. Hala ere, badaude batzuk Internet etsai moduan ikusten dutenak eta gaiztakeria besterik ez dagoela uste dutenak. Internet tresna ona eta erabilgarria da ondo erabiliz gero, eta hori ikusarazi behar zaie haiei, erabilpen onak dauzkala.



JOSE RIVIERE | ERRETIRATUEN ELKARTEA

Erretiratuak erakartzeko eskura ipini behar zaie, ematen ez bazaie ez dira-eta bila joango. Hala ere, erakusten bazaie gusura ibiltzen dira informazio bila edo posta begiratzen. Ez gerturatzeko beldurra baino nagitasunak eragiten du gehiago ez hurbiltzea, baina tresna polita da.



Egunkarietako harribitxiak

INTIFADA HASI ETA URTEBETERA BERDIN

Intifada hasi eta urtebetera jazarpena bere horretan da Mendebaldeko Saharan. Marokok inoiz baino polizia gehiago zabaldu ditu lurralde okupatuetan; giza eskubideak etengabe urratzen dituzte. NBEko Giza Eskubideen behatzaile talde bat lurralde okupatuetan izan da egunotan.

'Berria'
2006-05-21



Zorroztalea



Praktikotasuna

Hirurehun mila euro inbertituko ditu Udalak herriko jolasparkeak berritzeko (...) Hirigintza Saileko zinegotzi Juanjo Arrietak kontatu digu herrirako aparailu egokiak aukeratzeko aldera leku askotan ibili direla begira: "Azoka handiena ikusi genuen Italian" (...) Donostian udaletxe aurrean badirela azoketan ikusten ibili diren zabuen antzekoak.

'Goienkaria' | 2006-05-19

Ila topatu, eta Donostiako udaletxe aurrean dauden bezalako txekak ipiniko dituztela.

Ziburu onak eta modernoak aukeratzeko orduan, ez zen nahikoa Donostiako Alderdi-ederretik edo Araba plazatik, Bilboko Guggenheim ondok osteratxo bat egitea, gertu-gertuko hiru jolasparke egokiak aipatzearren. Edozein guraso koadrillak eman ditzake bospasei jolasleku onen izenak, guztiak ehun kilometroko gorabeheran. Bidaian erabilitako udal sosa alde batera lagata (gogoan izan lehentasunen kontua), benetan beharrezkoa zen Bergarako Udaleko ordezkariak Europar zehar paseatzea ziburu aukeran, Euskal Herrian ziburuak ipintzen lehenak izango balira moduan?

Badakit praktikotasuna ez dagoela udal kudeaketa zuzentzen duten irizpideen artean. Ziburuak aukeratzeko bidaiaren erabakia ez da agintari praktikoa batena, gizon zein emakume.

Elena Laka

Ni ez naiz emakumeak agintean baleude mundua ezberdina izango litzatekeela uste duten horietakoa. Ostera, bai iruditzen zait agintariak emakumeek oro har mendeetako etxekoandretzaren ondorioz edo garatu dugun praktikotasuna erabiliko balute, mundua errazagoa izango zela.

Bergaran jolasparkeek aspaldi zeukaten berritzeko premia. Ulertzen dut Udalak ezin diola edozein arazori berehalako irtenbiderik eman, arazoak asko direla eta dirua beti eskas, agintarien lanaren zati handi bat lehentasunak finkatzean datzala. Orain iritsi zaie jolaslekuei txanda. Eta hasi zaizkigu agintariak ziburu egokienak ipintzeko moduaren bila. Albisteak dionez, joan dira Europara, leku askotara, baita Italiara ere. Azkenean zein marabi-

"Beharrezkoa zen Bergarako Udaleko ordezkariak Europar zehar paseatzea ziburu aukeran?"

"Badakit praktikotasuna ez dagoela udal kudeaketa zuzentzen duten irizpideen artean"

ETORKIZUNEN ZUZENDARIA


Etorkizuneko zuzendariak sentimenduak kudeatu beharko ditu. Emozioak eta enpresa mundua ezingo dira kontzeptu bateraezinak izan. Enpresa munduan arazoia da errege, baina arazoia ez du errealitatea guztiz abarkatzen. Horixe da Luis Racionero ingeniari, ekonomilari eta idazleak defendatzen duen teoria eta dio ateak zabalik laga behar zaizkiela emozioei eta

intuizioari: "Enpresetan, denboraren %90ean arazoia erabili behar da, baina funtsezko gauzetan ezin da arazoiaz askorik fidatu". Horregatik aholkatzen die zuzendariari, irtenbide zailko arazoan aurrean albo batera laga dezatela arazoia eta jardute sistematikoa eta utz diezaiotela intuizioari eta senari gida ditzan.

'Noticias de Gipuzkoa'
2006-05-21



Tira, tira...



Montxo 'Berria' | 2006-IV-21

Egunkarietan irakurri dugu

'Gara'

MONTENEGRO ETA EUSKAL HERRIA

Autodeterminazio eskubidea balekoa da baldin eta gatazka bat konpontzeko bada, nahiz eta askotan lortu ez. Montenegroren kasuan, analisigileek diote identitate arazoek jarraitu egingo dutela dena delako erabakia hartzen dutela ere, zatiketa oso handia delako. Hori jakinda, badu zentzurik autodeterminazioak?

Julen Zabalo
2006-05-21

'Noticias de Gipuzkoa'

OSASUNAREKIN EZ DA JOLAS EGITEN

Osasunarekin ez da jolas egiten. Printzipio horri ez dio inongo gizartek muzinik egiten. Euskal osasun publikoaren auzia bereziki desatsegina da eragin dezakeelako herri-tarren zerbitzu medikoan. Gainera, herritarren gehiengoak ez daki zergatik atzeratu dioten medikuaren txanda eta zergatik topatu dituen osasun etxeen aurrean bilkurak.

Editoriala
2006-05-21

'Berria'

DEMAGUNKA

Ez naiz ondo konpontzen zerbakiak. Herenegun azkena. Azalean: "285.000 metro koadroko industrialdea eraikiko du Txinan MCCk". Berririo irakurri. Imajinatzen hasi, eta ezin. Hektareetara ekarri, futbol zelaietara bihurtu. Ezin hala ere. (...) Metroak dira albiste ala MCCk industrialde gaitza (hala bada) eraikiko duela Txinan?

Iñigo Aranbarri
2006-05-21

'El Mundo'

LEHENENGO BAKEA, GERO POLITIKA

Konforme. Baina hori planteatzen bada jarraipenik izango ez duen irtenbidea bezala; horrek esan nahi badu ETak berriz hilko ez duela esan eta 10 minutura solaskide berak jantzi ezberdinarekin alboko gelara joango direla autodeterminazioaz berba egitera... Hala bada, Gregorio Ordoñez eta Fernando Buesa ere jar daitezela mahai horretan.

Pedro J. Ramirez
2006-05-21

KIROLA

- Bergara eta Arrasateko herri arteko pilotariak final-laurdenetan dira | 20
- Unai Yus izan zen azkarrena Arrasateko Mendiko bizikleta lasterketan | 16-17



Fernando Zufiria
Arrasateko
atletismoko
entrenatzailearekin
izan gara | 21

PREFERENTE MAILA

ALOÑA MENDI

0-0

IDIAZABAL

Aloña Mendi | Elgarresta, Olalde, Astola, Idigoras (Garmendia, 77. min.), Arregi II, Lopez, Arregi I., Igartua, Barrena, Garai (Henry, 60. min.) eta Elgarresta.

Idiazabal | Turrientes, Naparzero, Goiburua, Argiñano, Urretabizkaia, Valor, Imaz, Urreta, Santamaria (Agirre, 55. min.), Serrano (Esnaola, 80. min.) eta Hergedas.

Golak: | Ez zen golik egon Azkoagain futbol zelaian.

Epailea | Urretabizkaia jauna. Lazkano eta Ulazia izan zituen laguntzaile lanetan.

Bestelakoak | Azkoagain jendez bete zen atzo Aloña eta Idiazabalen arteko partidua ikusteko. Zaletuek asko animatu zuten.

Bikain

Zaleak

Azkoagainera zale asko hurbildu ziren Aloñaren igoera ospatu nahian. Denboraldian zehar eta azken partiduetan batez ere, zaleen babesa izugarria izan da.

Kaskar

Ezin gola egin

Aloñak atzo gol bat nahikoa zuen garaipena eta, era berean, igoera ospatzeko. Baina Azkoagainen ez zen golik ikusi. Ahalegindu ziren Idiazabalen atea zulatzen, baina ez zen zorterik egon.

Esandakoak

“Gaur urduritasunez jokatu dute mutilek. Aukerak izan ditugu, baina ez gara gola egiteko gai izan”.

“Datorren astean igoera jokatu da Irunen eta hara dena ematera joan behar dugu. Oraindik aukerak ditugu igotzeko”.

JAVIER AZPIAZU |
ALOÑAKO PRESIDENTEA



JOSETXO ARANTZABAL

Henryk bizitasuna eman zion eskuin hegalarari, baina atzo ez zuen partidua erabakitzerik izan.

FUTBOLA | ZALE ASKO EGON ZEN AZKOAGAINEN ALOÑA ANIMATZEN

Datorren astean erabakiko da nor igotzen den mailaz

Aloña Mendik bere esku izan zuen atzo igoera, irabaztea nahikoa zuen, baina ez ziren gai izan Idiazabalen aurka golik egiteko oñatiarrak

Arantzazu Ezkibel

Atzo ezin izan zuen igoera ospatu Aloñak. Oruetaren mutilek irabaztea nahikoa zuten mailaz igotzeko, baina, urduritasuna tarteko, oñatiarrak ez ziren golik egiteko gai izan.

URDURITASUNA NAGUSI

Hasierako minutuetan kosta egin zitzaion Aloñari zelaian lekua hartzea. Denbora pasatu ahala, joko hobea egiten hasi ziren txantxiuarrak eta aukerak ere sor-

tu zituzten. 15. minutuan, Idiazabalen arean izandako korer batean, etxeko zaleek Idiazabalgok jokalaririk batek egindako eskua eskatu zuten. Baina epaileak ez zuen ezer adierazi eta ez zen penaltirik egon.

Oruetak Astola zelai erdira aldatu zuen, taldeari indarra eman nahian. Baina atzokoa ez zen aramaioarraren eguna izan. Atsedenerako bost minutu falta zirela, Idiazabalgok aurrelaria Aloñako atezainaren aurrean bakarrik geratu zen eta hark

baloia gora jaurti zuen. Susto galanta hartu zuten Azkoagainera hurbildutako zaleek.

Bigarren zatian, Aloñak Jokin Garai atera eta Henry zelairatu zuen. Aldaketa horrek bizi-

Bigarren zatian Aloñak aukerak izan zituen, baina ez zuen golik egin

Datorren astean Irunen erabakiko da nor den liga txapelduna eta nor igotzen den mailaz

tasuna ekarri zion Oñatiko taldeari. Hala ere, jokalaririk bolibiarrik ez zuen asmatu atzokoan baloia sareetan sartzen.

Aloña Idiazabalgok arean sartuta egon zen ia denbora guztian, baina aukera garbirik sortu gabe. Eta sortutako aukera gutxiak bukatzeko gai ez ziren izan. Aloñako jokalaririk aurrean sartuta zeuden, eta, hori dela eta, zelai erdian baloi batzuk galdu zituzten, baina Idiazabali gol aukera garbirik egiten utzi gabe.

DATORREN ASTEAN IRUNEN

Emaitza horrekin, Aloñak datorren astera arte itxaron behar du liga txapeldun den edo ez jakiteko. Beraz, zaleen babesa ezinbesteko izango dute jokalariek Irungo partiduan. Azken partiduan erabakiko da dena.

PREFERENTE MAILA



JOSETXO ARANTZABAL

Erikok hiru aukera garbi izan zituen gola egiteko, baina ez zuen asmatu.

Mondrak gol festa eskaini zuen azken partiduan

MONDRA
5-1
HONDARRIBIA

Arantzazu Ezkibel

Mondrak modu ezin hobean agurtu du aurtengo denboraldia etxe-koen aurrean. Partidua nahiko berdindua hasi zen, nahiz eta baloiaren jabetza Mondrak izan,

Hondarribiako taldea ondo itxi zen. 40. minutuan Jon Muruaren burukadaren ostean lehenengo gola iritsi zen. Eta handik aurrera partidua goitik behera aldatu zen.

Bigarren zatian Mondrak guztiz menderatu zuen partidua. Aukera asko sortu zituen eta golak bata bestearen atzetik etorri ziren. Mondra talde sendoa goa izan zen arren, markagailuko alde handiegia izan zen.

Aipatu behar da Muruak lau gol sartu zituela. Beste golegilea Laspiur izan zen.

UDA hirugarrena izango da Preferenteko sailkapenean

UDA
2-1
ZARAUTZ

UDA | Eriz, Sanchez, Gonzalez, Erostarbe (Gonzalez, 50. min.), Armenaiz (Arenatza, 55. min.), Arrieta (Nuñez, 63. min.), Urribetxerria (Orueta, 58. min.), Igartua, Arriaga, Gartzia eta Rodriguez (Espinosa, 58. min.).

Zarautz | Loroño, Seguro, Errazti (Larrañaga, 87. min.), Apalategi, Grijalbo, Ruiz, Fernandez (Azpitarte, 73. min.), Nogales, Manterola (Zubielki, 73. min.), Solabarrieta eta Arregi.

Golak: 1-0, Arriaga (49. min.), 1-1, Nogales (51. min.), 2-1 Orueta (86. min.).

Epailea: Blanco jauna.

Mireia Bikuña

UDAk sailkapenari begira aurkari zuzena zuen Zarautz. Bada, partidua irabazi ondoren eta partidu baten faltan, aretxabaletarrek sailkapeneko hirugarren tokian amaituko dute liga.

GOLAK BIGARREN ZATIAN

Futbolaren saltsa golak dira eta haiek bigarren zatian ikusi ziren Ibarra futbol zelaian. 49. minuturako aurreratu zen UDA. Korner bat atera ondoren lehenengo Igartuak errematatu zuen, ondoren Urribetxerriak eta, azkenik, Arriagak gola egin zuen.

Oraindik ospakizunetan zaudela, Zarautzek partidua berdindu zuen 52. minutuan. UDA-

ko atezainak ez zuen baloia ondo harrapatu eta Nogalesek berdinketaren gola egin zuen.

UDAk aurrera egin zuen etxe-ko azken partidua irabazteko asmoz. Erikok hiru erremate izan zituen jarraian. Ez zuen golik egin. Azkenean, Oruetak lortu zuen gola, bolea jaurtiketa batean, 86. minutuan. Hala, garaipena etxean geratu zen.

UDA-KO KADETEAK

Omenaldia jaso zuten UDako kadete mailako jokalariek Ohorezko Mailara igotzeagatik. UDak eta Zarautzek txalo artean hartu zituzten futbolariak zelaian. Ohorezko sarea egin ondoren, argazkia egin zuten zelai erdian.

Emaitzak eta sailkapenak / Preferente maila

EMAITZAK	SAILKAPENA						
	Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
Irun 1902-Real Union	0-1						
Berio-Anaitasuna	6-0						
Mondra-Hondarribia	5-1						
Allerru-Trintxerpe	4-1						
Zestoa-Hernani	4-0						
UDA-Zarautz	2-1						
Touring-Ordizia	4-1						
Pasaia-Mutriku	0-3						
Orioko-Beti Gazte	2-4						
Aloña Mendi-Idiazabal	0-0						
HURRENGOAK							
Anaitasuna-Irun 1902							
Hondarribia-Berio							
Trintxerpe-Mondra							
Hernani-Allerru							
Zarautz-Zestoa							
Ordizia-UDA							
Mutriku-Touring							
Beti Gazte-Pasaia							
Idiazabal-Orioko							
Real Union-Aloña Mendi							
1. Aloña Mendi	77	37	24	8	5	73	41
2. Real Union	75	37	23	8	6	74	36
3. UDA	71	37	21	8	8	64	33
4. Zarautz	63	37	18	10	9	70	44
5. Ordizia	62	37	20	15	2	67	53
6. Touring	57	37	16	12	9	55	52
7. Trintxerpe	57	37	17	14	6	64	53
8. Pasaia	53	37	13	14	10	60	53
9. Mondra	53	37	15	14	8	57	44
10. Hondarribia	52	37	14	13	10	45	56
11. Mutriku	51	37	15	16	6	47	48
12. Hernani	50	37	14	15	8	48	57
13. Berio	49	37	13	14	10	57	51
14. Anaitasuna	45	37	13	18	6	52	54
15. Idiazabal	43	37	11	16	10	40	56
16. Zestoa	43	37	11	16	10	45	58
17. Irun 1902	42	37	11	17	9	48	64
18. Orioko	32	37	7	19	11	45	86
19. Beti Gazte	29	37	6	20	11	42	66
20. Allerru	22	37	4	23	10	33	81

Erregional maila, igoera fasea

Epailea izan zen partiduko protagonista bakarra

BERGARA
1-1
EUSKALDUNA

Mireia Bikuña

Futbol partidu baten amaieran epaileak egindako lanari buruz hitz egiten denean, gauzak gaizki egin dituen seinale. Zapatuan Bergarak eta Euskaldunak jokatutako partiduen amaieran

Petrikorena jaunak egindako lana zen Agorrosinen egondako zaleen arteko komentario bakarra. Izan ere, jarrera desegokia erakutsi zuen jokalarien aurrean. Jokoa behin eta berriz moztu zuen eta falta asko adierazi zituen; amaieran sei minutuko luzapena adierazi zuen.

PENALTI HUTS EGIN ZUEN BERGARAK

Bi taldeek partidua nahiko urduri hasi zuten, jokoan zegoena kontuan hartuta. Baina Bergarak izan zuen abantaila hartzeko lehen aukera garbia. Epaileak

penalti jaurtiketa adierazi zuen 10. minutuan. Canasen jaurtiketa atezainak gelditu zuen.

Talde mahoneroak ez zuen etsi eta falta asko adierazi arren markagailuan aurre hartu zuen. 28. minutuan Ikerrek Cabanillasek egindako erdiraketa errematatu zuen.

Berdinketaren gola bigarren zatian lortu zuen Euskaldunak, bi aldiz jaurti zen penalti batean. Ugaldek egin zuen gola. Momentu hartatik aurrera, lehenik ere nahiko bero zegoen partidua askoz gehiago gogortu eta berotu zen.



JOSETXO ARANTZABAL

Imanol Cabanillasek egin zuen erdiraketa Bergarak gola egiteko.



Euskadiko Open sariko liderrak ageri dira podiumean euren elastiko horia gainean dutela.

ARANTZAZU EZKIBEL

MENDI LASTERKETA | EGURALDIA LAGUN IZAN ZUTEN ATZO TXIRRINDULARIEK

Unai Yusek ez zuen hutsik egin eta garaipena eskuratu zuen Arrasaten

Neskek goizeko 9:30etan hartu zuten parte lasterketan. Denetan azkarrena Ana Yunta izan zen

Arrasateko Ederra Taberna taldeak antolatu zuen lasterketa. Jende askoak hartu zuen parte bertan

Arantzazu Ezkibel

Unai Yus gasteiztarra zen faborito nagusia Arrasateko lasterketa irabazteko eta ez zuen hutsik egin. Profesionalak ibilitakoa da Unai eta atzo erakutsi zuen zer nolako maila duen. Unai 1:35:35ko denbora behar izan zuen lasterketa amaitzeko.

Elite mailako txirrindulariek eta beteranoek goizeko 11:30etan eman zioten hasiera lasterketari. Nagusiek bost itzuli eman zioten sei kilometrotako zirkuituari eta beteranoek, berriz, itzuli bat gutxiago.

Hasierako itzulian hartu zuen aurre Unai. Lehenengo aldiz helmugatik pasa zenean

alde txikia ateratzen zion bigarrenari. Baina itzuliak egin ahal, Unai alde handitu zuen. Azkenean 1:12ko denbora atera zion Yusek bigarren izan zen Asier Apeztetxeari. Ez zuen arazorik izan proban nagusitzeko eta pozik zegoen egindako lanarekin. "Nire helburua lasterketa irabaztea zen. Egun gutxi barru Espainiako txapelketa jokatu dut eta proba horretarako entrenatzen nabil", esan zion Unai. Beterano mailan, Ramon Lekuona izan zen azkarrena. Ramon, beterano mailako Euskadiko Openeko liderra da. Orain arte jokatuak lau karrerak irabazi ditu Lezotarrak

EMAKUMEEK HIRU ITZULI

Emakumeen lasterketa goizeko 9:30etan hasi zen, kadete eta gazteekin batera. Horiek zirkuitua-

ri hiru itzuli egin beharra izan zizkieten. Sei neskek hartu zuten parte lasterketan eta denetan azkarrena Ana Yunta izan zen. Hon-

6 neskek hartu zuten parte proban. Helmugan azkarrena Ana Yunta izan zen.

Iñigo Roldanek zulatua izan zuen lehenengo itzulian. Laugarren zen momentu horretan

darribiako txirrindulariak 1:13:29ko denbora behar izan zuen 18 kilometroak egiteko. "Oso pozik nago egin dudana lanarekin. Lasterketa polita iruditu zait, baina bita gogorra ere" esan zion Hondarribiko txirrindulariak helmugan.

ARRASATEARRAK ONDO

Etxeko txirrindulariek proba ona egin zuten. Lehenengo itzulian Ederra taldeko Iñigo Roldan laugarren zen, baina gorpila zulatuta zitaion eta atzean geratu behar izan zen.

Zigor Urain arrasatearra 5. sailkatu zen Master 30 mailan. 1:53:55 denbora behar izan zuen Urainek proba amaitzeko. "Jende asko etorri da lasterketa egitera eta maila oso ona egon da" esan zion Zigorrek lasterketa amaitu bezain laster.

EUSKADIKO OPENA ARRASATEN



JOSETXO ARANTZABAL

Txirrindulari multzoa aldapa gora Arrasateko zirkuituan.



JOSETXO ARANTZABAL

Maldan behera lasaiago ibili ziren txirrindulariak.



ARANTZAZU EZKIBEL

Maldan gora bizikleta eskuan hartu zuen txirrindulari honek.



ARANTZAZU EZKIBEL

Uni Yus iritsi zen lehenengo Arrasateko helmugara.



ARANTZAZU EZKIBEL

Parte-hartzaileak lasterketa bukaeran hizketan ageri dira.

Emaitzak

ELITEKOAK

1. Unai Yus	(1:35:45)
2. Asier Apeztetxea	(1:36:57)
3. Patxi Cia	(1:39:09)
4. Ismael Ruiz	(1:43:27)
5. Ander Elizgarai	(1:44:05)
6. Urko Munduate	(1:44:03)
7. Jose Maria Goia	(1:45:55)
8. Aitor Urruzola	(1:46:09)
9. Jorge Gonzalez	(1:46:34)
10. Eriz Quintana	(1:47:15)

MASTER 30

1. Jose Lusi Iñarbe	(1:44:26)
2. Miguel Angel Izquierdo	(1:47:25)
3. Jose Caldas	(1:48:41)
4. Iñigo Garaya	(1:49:51)
5. Zigor Urain	(1:53:55)
6. J. Ramon Salvatierra	(1:55:31)
7. Felix Sugasti	(1:57:24)
8. Ibon Oñate	(2:02:42)
9. Igor Lazkano	(3:00:00)
10. Josefe Fernandez	(3:00:00)

TALDEKA

1. Mendiz Mendi
2. Berriz, Urondo
3. Lizarralde Kirolak
4. Iurbentia
5. Lasa Sagardoy
6. La Bicicleta
7. Herza Klima
8. Ciclo Patxi
9. Segurod Bilbao
10. Ciclos Iñaki

GAZTEAK

1. Omar Fraile	(1:43:41)
2. Rafael Segovia	(1:44:36)
3. Alberto Sainz	(1:45:13)

NESKAK

1. Ana Yunta	(1:13:29)
2. Olaitz Bertol	(1:18:45)
3. Monika Ojeda	(1:19:59)
4. Olatz Odriozola	(1:23:11)
5. Rosa Maria Herrero	(1:25:37)
6. Marta Garcia	(1:28:04)

• HONELA IKUSI ZUTEN PARTE-HARTZAILEEK



UNAI YUS |
LEHENENGO GIZONA | GASTEIZ

“Lasterketa nahiko gogorra izan da, batez ere igoerako parte, luzea izan da-eta. Helmugatik gorako bidea nahiko luzea egin zait gorantz igotzeko. Aldapa beherako zatia, berriz, oso polita iruditu zait, zati teknikoak zituen eta polita izan da. Nire hurrengo lasterketa Espainiako itzulia izango da. Arrasateko lasterketa proba bezala hartu dut, nola nagoen ikusteko”.



ANA YUNTA |
LEHENENGO EMAKUMEA | HONDARRIBIA

“Guk, neskak, hiru itzuli eman behar izan dizkiogu zirkuituari eta oso polita iruditu zait. Nik ez dut arazorik izan ez erorketekin ezta bizikletarekin ere. Dena ondo atera zait. Igoera gogorra izan da baina jaitsiera polita zen benetan. Antolaketa aldetik, dena ondo zegoela iruditu zait. Seinale guztiak argi zeuden eta alde horretatik ez da inolako arazorik izan”.



RAMON LEKUONA |
LEHENENGO BETERANOIA | LEZO

“Gogorra egin zait Arrasateko lasterketa. Lehenengo itzulia asko sufritu dut baina behin alde atera diodanean bigarrenari lasaiago joan naiz. Lasterketan ez dut arazorik izan ez erorketekin ezta ere bizikletarekin. Dena ondo joan dela esan behar dut. Orain arteko lau probetatik laurak irabazi ditut. Open Euskadiko sariko liderra naiz”.



ZIGOR URAIN |
ARRASATE

“Arrasateko Ederra taldeak antolatutako lasterketa gogorra izan da. Aldapa luzea du eta 5 itzuli egitea oso gogorra da. Jende askoak hartu du parte eta hori pozgarria da antolatzen aritu garenentzat. Maila altua egon da lasterketan, eta zaila izan da aurreko postuetan egotea. Hala ere, Master 30 sailean 5. sailkatu naiz eta denbora ona egin dudala esan behar dut”.

• LEHENENGO TERRITORIALA, IGOERA TXAPELKETA

Euskadiko Txapelketa jokatu du Ford Mugarrik

Igoera faseko etxeko partidu guztiak irabazi ditu Ford Mugarririk Arrasatek

FORD MUGARRI
32-23
DONIBANE

Ford Mugarririk | Egaña, Valle, J. Eskibel (2), A. Eskibel (1), Urrutia (3), Gartzia (1), Martinez de Mendibil (3), Murillo (1), Calleja (5), Altzelai (5), Isasmendi (7), Otegi (2), Carrasco eta Espeso (2).

Donibane | Karrantza, Gajate (4), Riaño (1), Babace (1), Pardo, Arroio, Elustondo (2), Oiarbide (2), Gontzalez (6), Badiola (2), Vicente, Olaizola (4) eta Perez.

Golak bost minuturo: 4-2, 5-4, 8-6, 11-8, 14-8, 15-9. Atsedena. 16-11, 19-13, 22-15, 25-18, 28-21, 32-23.



JOSETXO ARANTZABAL

Jon Urrutiak hiru gol sartu zituen domekako partiduan.

Mireia Bikuña

Puntu batekin nahikoa bazuten ere, partidu borobila jokatu zuen Ford Mugarririk domekan. Ez zion aukerarik eman Donibaneko taldeari. Haiek ere berdinketarekin Euskadiko Txapelketa jokatzeko txartela eskuratzen zuten. Igoera faseko azkeneko partidua lasai jokatu du arrasatearrek.

TALDE EZAGUNAK

Ford Mugarririk eta Donibanek elkar ondo ezagutzen dutela erakutsi zuten lehiaren hasierako minutuetan. Berdintasuna izan zen nagusi une haietan. Arandoren taldea izan zen markagailua zabaldu zuena: 5-2 jarri zen aurretik. Baina Donibanek ez zuen amorerik eman. Aukerak izan zituen berdinketa lortzeko,

baina arrasatearrek izan ziren atsedeneren aurretik partidua erabakita utzi zutenak. Markagailuko aldea zazpi golera zabaldu zuten. Lehen zatiko azken bederatzi minutuetan Donibanek gol bakarra egin zuen.

GALTZEKO ARRISKURIK EZ

Bigarren zatian Arandoren taldeak ez zuen arazorik izan mar-

kagailuko aldeari eusteko. Hala, aldea 7-8 goletan ibili zen.

Donibane ideia garbi barik ateratu zen: huts asko egin zituen erasoan eta defentsan. Partidua bukatzeko bost minutu falta zirela, Donibanek partidua galdutzat eman zuen.

Amaieran biziki ospatu zuten igoera Ford Mugarririk jokalariek, xanpain eta guzti.

• KOPA TXAPELKETA, FINALERDIAK

Finaletik kanpo geratu da Bergara

BERGARA
26-29
ORMAIZTEGI

Bergara | Kapelastegi, Urabide (2), Larrñaga (11), Agirre, Sanchez (2), Pozo, Najera, Najera (1), Errasti, Zabaleta, Lenisoro (2), Zangitu eta Plazaola (6).

Ormaiztegi | Maiz, Alberdi, Otegi (4), Aramendia, Nazorriaga (7), Petxarroman (3), Maiz, Hernandez, Adamendia (5), Iraeta, Holgado (3) eta Larrñaga (6).

Golak: 2-1, 4-4, 6-8, 9-11, 11-14 15-15. Atsedena. 16-19, 18-22, 20-23, 21-24, 24-27, 25-29.

Arantzazu Ezkibel

Bergara kopa txapelketako finaletik at geratu da Ormaiztegiaren aurka 26-29 galduta. Ezer gutxi-rako balio izan dio talde mahoneroari finalerdia etxean jokatu izanak.

ERASOAN ARINEGI

Hasierako minutuetan Bergarak markagailuan aurre hartu zuen, baina denbora pasa ahala urduritasuna nagusitu zen etxekoan artean. Erasoan arinegi jokatu zuten eta horrek baloi asko galtzea ekarri zien. Hala, Ormaiztegi 6-8 aurretik zen 15. minutuan.



JOSETXO ARANTZABAL

Jaurtiketa asko huts egin zuten bergararrek bigarren zatian.

Azken minutuetan, defentsan lan ona egin zuten eta atsedenera berdinduta iritsi ziren (15-15). Lenisororen lana aipagarria izan zen.

Baina bigarren zatian partiduak ihes egin zien etxekoei. Final barik geratu diren arren, txapelketa bikaina egin du Bergarak.

• GAZTE MUTILAK

Ereintzak mendean hartu zuen Bergara

Arantzazu Ezkibel

Bergarako gazteek 24-30 galdu zuten zapatuan kopa txapelketako azken partidua.

Ereintzak talde sendoa dela erakutsi zuen Labegaraian. Erasoan ondo aritu ziren Oretetako mutilak eta ez zuten arazorik izan Bergarako atea zulatzen.

HIRUGARREN POSTUA

Bergarak amaitutzat eman zuen kopa txapelketa zapatuko partiduarekin. Hirugarren postuan geratu dira mahoneroak partidu bat irabazi eta hiru galduta. 101 gol izan dituzte alde eta kontra, berriz, 111.

• KADETE MUTILAK

Garaipena Aloñarentzat liga amaitzeko

Mireia Bikuña

Denboraldia amaitu zuten zapatuan Aloña Mendiko kadete mailako mutilek. Eta mendean hartu zuten Egia taldea: 28-22.

DEFENTSAN LAN BIKAINA EGIN ZUTEN

Partidua zaila izan zen oñatiarrentzat, bi taldeak elkar ondo ezagutzen direlako. Baina defentsako lanean oinarritu zuten garaipena.

Azpimarratzekoa da Argoitz Arregi atezainak egindako lana. Asier Urrutiak erasoan egindako lana ere aipatu beharra dago: 13 gol egin zituen-eta.

Ikusle asko hurbildu zen Aloña Mendiko kadete mutilen denboraldi amaierako norgehiagoka ikustera.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

EUSKADIKO IGOERA TXAPELKETA
Ford Mugarririk-Donibane 32-23

KOPA. FINALERDIAK
Bergara-Ormaiztegi 26-29

GAZTE MUTILAK. KOPA TXAP.
Bergara-Ereintza 24-30
Leizaran-Aloña Mendi 28-29

GAZTE NESKAK. KOPA TXAP.
Aiala Zarautz-Verkol Aloña 30-29

KADETE MUTILAK. KOPA TXAP.
Aloña-Egia 28-22

KADETE NESKAK. KOPA TXAP.
Aldaketa 16-Verkol Aloña 12-15

• NESKA GAZTEAK

Talde ahula izan zuten kontrario

Denboraldiko etxeko azken partidua jokatu zuten Aloñako neskek zapatuan eta irabazi egin zuten



JOSETXO ARANTZABAL

Ane Picok 36 puntuetatik 20 egin zituen zapatuan Zubikoa kiroldegian.

ALOÑA MENDI

36-23

LITAPHAR

Aloña Mendi | Cruickshank, Ugarte (2), Losada, Ugarte, R. Maestro (14), Telleria, Pico (20) eta Fernandez.

Litaphar | Gallastegi (2), Rekondo (10), Larrañaga, Mendizabal, Uranga, Juaristi (9), Agirre, Fernandez, Lesaka (2) eta Etxaniz.

Laurdenetako emaitzak: Lehenengo laurdena 2-2. Bigarren laurdena 14-6. Hirugarren laurdena 28-11. Laugarren laurdena 36-23.

Arantzazu Ezkibel

Ezin hobeto agurtu zuen Aloñak denboraldia etxekoen aurrean. Zapatuan, Azpeitiko Litaphar taldearen aurka erraz nagusitu ziren oñatiarrak: 36-23.

Norgehiagoka motel hasi zuten bi taldeek. Lehenengo laurdenean, bai Aloñak eta bai Litapharrek bi puntu besterik ez zuten egin. Defentsan ondo aritu ziren eta jaurtiketetan, berriz, huts asko egin zituzten.

PARTIDUARI NEURRIA HARTU Bigarren eta hirugarren laurdenetan, Aloñako neskek partidu txukuna egin zuten. Aurkariari neurria hartu eta joko

polita egiteko gai izan ziren oñatiarrak.

Hala, 26 puntu lortu zituzten eta aurkariak 9 besterik ez. Hor lortu zuen Aloñak garaipena. Kontuan izanda Aloña bost jokalarirekin bakarrik aurkeztu zela partidura, lan ona egin zuen taldeak.

Momentu oro mendean izan

zuten oñatiarrek Litaphar. Defentsan zulo guztiak itxi zituzten eta erasoan baloia ongi mugitu zuten, taula azpira ondo iritsita.

Gainera, azken zazpi minutuetan lau jokalarirekin ibili ziren, epaileak Ugarte egotzi zuen-eta. Oñatiarren taldean Ane Picok 20 puntu egin zituen.

• JUNIOR NESKAK

Eskoriatzak galdu egin zuen: 32-31

Mireia Bikuña

Partiduan huts egindako jaurtiketa libreen erruz ez zuten garaipenik lortu Eskoriatzako neskek: 32-31.

Azken unean erabaki zen zapatuko partidua. Eskoriatzarrak bi puntu atzetik zeuden eta bi jaurtiketa libre zituzten, gutxienez partidua berdintzeko. Baina bakarrik saskiratu zuten. Partidu bakarra falta zaie liga amaitzeko.

• KADETE MUTILAK

Bergararrak nagusi Zarautzen

Mireia Bikuña

Zailtasun barik irabazi zuten Bergararak kadete mailako mutilek Zarautzen jokaturako partidua: 27-48.

SAILKAPENA

Eta garaipen horrek aukera ematen die sailkapeneko bigarren tokian jarraitzeko. Orain arte jokaturako lau partiduetatik, bi irabazi eta besteak biak galdu egin dituzte.

• JUNIOR, MUTILAK

Galdu egin zuten berriro ere



ASTELEHENKO GOIENKARIA

Asteburuan amaituko dute liga Mugarri Alkesako juniorrek.

LASAO

75-53

MUGARRI ALKESA

Azpeitian jokaturako partidua galdu egin dute.

BALOI ASKO GALDU

Azpeitiarrek partidu erraza jokatu zuten. Barruko joko askoz hobeto menderatu zuten eta horrek aukera eman zien markagailuan abantaila hartzeko. Arrasatearrek, gainera, baloi asko galdu zituzten erasoan.

Mugarri Alkesak bi baja garrantzitsu izan zituen: Beñatek eta Antxonek ez zuten jokatu.

Mireia Bikuña

Denboraldia luzeegi egiten ari zaio Mugarri Alkesako junior mailako taldeari. Asteburuan

Emaitzak

MAILAZ MAILA

GAZTE MUTILAK

Lasao Altzar-Mugarri Alkesa 75-53

GAZTE NESKAK

Aloña Mendi-Litaphar 36-23

BKL CAF-Eskoriatza 32-31

KADETE MUTILAK

Cald. Zaher-Mugarri Alkesa 100-38

Zarautz-Lacor 27-48

Goierri-Aloña Mendi 39-82

KADETE NESKAK

Aldapeta-Bergara 35-49


Eskoriatza-Lazkao Txiki 18-28



AZKARATE
aroztegia



- Ateak
- Leihoak
- Horma-armairuak
- Tarimak
- Parketak
- Sukaldeak



*Arotz lanetan
behar duzun guztia*

Pilota

• HERRI ARTEKO TXAPELKETA



ARTXIBOA

Bergara erraz nagusitu zitzaion Zarautzi.

Bergara eta Arrasate final-laurdenetara iritsi dira

Bergara taldeak Zarautz eta Arrasatekoak Elgoibar gainditu dituzte txapelketako final-zortzirenetan

Arantzazu Ezkibel

Bergarak eta Arrasatek aurrea egin dute pilotako herri arteko txapelketan, Zarautzi eta Elgoibarri irabazita, hurrenez hurren. Bergararrek 0-3 irabazi zuten egubakoitzean Zarautzen. Kadete mailan, Jon Perez eta Haritz Resustak 22-21 irabazi zuten. Gazte mailan, Jon Larrañaga eta Oier Aldai erraz nagusitu ziren: 22-2. Azkenik, Beñat Iñarra eta Joseba Erranzek 22-14 irabazi zuten Zarauzko bikoteari.

ARRASATE ERE NAGUSITU EGIN ZEN

Arrasateko pilota taldeak ere irabazi egin zuen bere kanporaketa. 2-1 nagusitu ziren eta haiek ere aurrera egingo dute. Joaneko partiduetan 2-1 nagusitu ziren eta atzo ere emaitza bera egin zuten arrasatearrek. Kadete mailan, Ibai Bolinaga eta Ander Zubizarreta 22-9 nagusitu ziren. Partidua gaizki hasi zuen Arrasateko bikoteak. 8-9 galtzen egon ziren kadete mailako mutilak, baina azkenean

partidua aurrera ateratzea lortu zuten. Gazteek, berriz, galdu zuten zapatuko partidua bakarra. Gorka Jimenez eta Iker Agirregabiriak 8-22 galdu zuten Elgoibarko bikotearen aurka. Azken partiduan, nagusietan, Egoitz Uribarren eta Unai Aspe 22-14 nagusitu ziren.

Datorren astean Andoain izango du aurkari Arrasatek eta Bergarak, berriz, Azpeitia taldea. Kanporaketa gaindituz gero finalerdietan izango dira bi taldeak.

Saskibaloia

• 3X3 TXAPELKETA

132 taldek parte hartu zuten txapelketan

Benjamin, alebin, infantil, kadete eta junior mailako neska-mutikoak lehiatu dira Laubide plazako saskibaloia txapelketan

Mireia Bikuña

Gaztetxoaren artean saskibaloia sustatzeko helburuarekin antolatzen dute urtero txapelketa Ointxe! saskibaloia elkarteak eta Leintz Eskola Kirolak. Hala, lau edo bost jokalariz osatutako 132 taldek eman zuten izena Laubide plazan jokatu zen txapelketan parte hartzeko: 41 benjamin mailakoak, 47 alebinak, 33 infantilak, 10 kadeteak eta bakarra junior mailakoa. Jokalari gaztetxoek 9 urtekoak ziren eta zaharrenak, berriz, 17 urtekoak.

SASKI BAKAR BATEKIN

3x3 saskibaloia txapelketa kanporaketa bidez jokatu da eta saski bakarrarekin. Saskiaren inguruan ohiko distantziak markatu

ziren: jaurtiketa libreak eta bi eta hiru puntuko saskiratzeak egiteko. Talde bakoitzean hiru jokalarik parte hartu zuten eta aldaketa bat edo bi egiteko aukera izan zuten. 15 minutuko partidua jokatu zituzten. Benjamin eta infantil mailako partidua goizean jokatu ziren eta kadete, junior eta gainontzeko infantilak arratsaldean. Taldeak mutilenak, neskenak eta mistoak izan ziren.

SARIAK

Saskibaloia txapelketa amaitu ondoren antolatzaileek sari banaketa egin zuten. Irabazleei kamisetak banatu zitzaizkien eta sari potoloena ere jaso zuten: TAUk Gasteizen antolatzen duen 3x3 saskibaloia txapelketan parte hartzeko doaneko izenematea.



JOSETXO ARANTZABAL

Taldeak neskenak, mutilenak eta mistoak izan ziren.

Mendia

Martitzenean hasiko da Besaidek antolatutako mendi hamabostaldia

Arantzazu Ezkibel

Arrasateko Besaide mendi taldeak Mendi Hamabostaldia antolatu du datozen egunotarako.

MENDI IRTEERAK

Maiatzaren 27an MTB irteera egingo da. Irteera goizeko 9etan izango da Musakolako kiroldegian. Antolatzaileek adierazi digutenez, beharrezkoa izango da kaskoa eramatea. Bukarera dutxatzeko aukera egongo da eta baita jatekoak ere. Ibilbidea hona-

ko hau izango da: Arrasatetik Aramaiora Tellamenditik pasatuz. Gero Besaide igo eta Kanpanzarrera hartuko dute. Anporretako bidetik Arrasatera jaitsiko dira berriro.

Emanaldi guztiak Monterron jauregian izango dira, 19:30ean

Ekainaren 3an beteranoen irteera izango da eta ekainaren 4an Aiba! mendi martxa.

DIPOSITIBA EMANALDIK

Martitzenean, maiatzak 23, Josune Bereziartuak *Josuneren momentu onenak* aurkeztuko du. Maiatzaren 26an *Laos iparra bizikletaz* emanaldia egongo da eta maiatzaren 30ean Arkaitz Erkiagak *Iberiar penintsulari itzulua kaietan* diapositiba emanaldia aurkeztuko du Arrasaten.

Azkenik, ekainaren 2an *Ipar Euskal Herri mendiak* izango da ikusgai. Diapositiba emanaldi hori Pampi Olaizolak aurkeztuko du.

Mendi Hamabostaldiko diapositiba emanaldi guztiak Monterron jauregian izango dira, 19:30ean.



ARTXIBOA

Mendi bizikleta ibilaldia maiatzaren 27an izango da.

Fernando Zufiriak gertutik ezagutzen du Arrasateko atletismoa. Urte asko daramatza saila koordinatzen. Aurretik atleta ere izandakoa da. Krosa eta altuera

jauziak egin zituen. Baina 22 urterekin istripua izan ondoren korrika egiteari utzi eta entrenatzaile lanetan hasi zen. Oso harro dago Arrasateko atletismoak

Durangon jokaturako Euskadiko Txapelketan lortu zituen bost dominengatik. Horregatik, bada, entrenatzeko pista egokiak eta duinak aldarrikatzen ditu Zufiriak.

FERNANDO ZUFIRIA | ARRASATE ATLETISMO SAILEKO ARDURADUNA

"Arrasaten entrenatzeko atletismoko pista egoki bat behar dugu"

Mireia Bikuña

Durangon jokaturako Euskadiko Txapelketan bost domina eskuratu zenituzten. Zer-nolako balorazioa egiten duzu?

Bueno, denboraldia orain hasi dugu. Baina oso pozik gaude lortutako emaitzekin. Domina gehiago eskuratzeko aukerak ere izan genituen. Aitor Etxagibel podiumetik kanpo geratu zen, baina bere marka ondu egin zuen. Gainera, Euskadiko Txapelketan lortutako emaitzekin, batzuek uztailen Espainiako Txapelketan parte hartzeko txartela lortu dute. Beste batzuek eskura dute txartel hori.

Zer maila erakutsi zuten taldeek Durangoko txapelketan?

Bizkaiko, Gipuzkoako, Arabako eta Nafarroako atletak elkartu ziren Euskadiko Txapelketan. Maila handiko partaideak zeuden arren, 4x100eko erreleban urrezko domina lortzeko gai izan ziren Jon Ander Amado, Iñaki Etxagibel, Markel Blanco eta Imanol Espeserate. Oso harro gaude lortutakoarekin.

Errelebuko proba irabazteko taldekideen artean komunikazio ona izatea beharrezkoa da?

10 urte zituztenetik elkarrekin entrenatzen dira. Alde horretatik, elkar ondo ezagutzen dute. Errelebuko probetan lekukoa era egokian ematea da gakoa. Gipuzkoa mailan ere badakite Arrasaten errelebuko probetan ondo baino hobeto moldatzen garela. Alde horretatik, inbidia pixka bat

ere badigute. Egun batzuk barru taldekako Gipuzkoako Txapelketan parte hartuko dugu eta ziur nago errelebuko taldeak dominaren bat lortuko duela.

Lander Errastik Jonathan Perezen errelebua hartuko al du pertika-jauzian?


Lander oraindik oso gaztea da, 18 urte besterik ez du. Aurtengo helburua 4,50 metro egitea da. Dagoeneko 4,30 egin du. Jonathan Perezek meritu handia du, lana eta kirola uztartzen dituelako.

Kirolari horiek zainketa berezirik izaten dute? Elikadura, entrenamenduak...

Jonathan Perez aurtengo hasi da federazioko mediku batekin dieta berezia hartzen. Halako maila duten kirolariek beharrezkoa dute plangintza berezia.

Sakrifizio handiko kirola al da atletismoa?

Bakarkako kirol guztiak dira oso sakrifikatuak. Diziplina handia eskatzen du: Jonathan Perez astean sei egunean entrenatzen da eta Lander bost egunean. Astean behin Donostiara edo Durangora joaten dira entrenatzera.



JOSETXO ARANTZABAL

Atletismoko pistetan izan ginen Fernando Zufiriarekin.

Entrenatzeko pista egokirik ba al dago Arrasaten?

Ez. Gu kalean entrenatzen gara. Distantziak lurrean marcatzen ditugu. Zapatuetan Zumarragara joaten gara entrenamendua egitera. Arrasatek duen atletismo maila mantentzeko pista duina behar dugu.

Zenbat atleta dituzue gaur egun zuten aginduetara?

Federatutakoak, kadete mailatik gorakoak 48 atleta ditugu. Alebin eta infantil mailetan, berriz, 30 inguru. Ni naiz atletismo saileko arduraduna. Entrenamenduetarako bi laguntzaile ditut: Jon Ander Amado alebin

eta infantil mailakoez arduratzen da. Lorenzo Avilak, berriz, federatutakoekin egiten du lan. **Atletismo sailean zer dirulaguntza jasotzen duzue?**

Guk dirua AUKEAtik, Udaletik jasotzen dugu, Atletismo Federaziotik eta Eskola Kirolek ere bai.

Bost domina lortu zituzten arrasatearrek Euskadiko Txapelketan

Emaitza bikaina lortu zuten Arrasate Atletiko taldeko kideek Durangon jokaturako Euskadiko Txapelketan. Jon Ander Amadok urrezko domina eskuratu zuen 200 metroko distantzian, 23,49 segundoko denbora eginda. Urrezko bigarren domina Lander Errastik lortu zuen pertika-jauzian, 4,10 metro eginda. 4x100 metroko errelebuko taldeak ere urrezko domina ekarri zuen etxera. Jon Ander Amado, Iñaki Etxagibel, Markel Blanco eta Imanol Espeserate dira errelebuko taldeko kideak. Zilarrezko domina, berriz, Markel Blancok eskuratu zuen 1.500 metroko lasterketan. Azkenik, brontzezko domina Lide Pagaldaik ekarri zuen etxera. Pertika-jauzian 2,30 metrokoa egin zuen hark.



"Sakrifizio handiko kirola da atletismoa; diziplina handia eskatzen dute bakarkako kirolek"

KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

- Jaietako irudia eta esaldia aukeratzeko lehiaketak deitu dituzte Eskoriatzan | 27
- Mundumiraren argazki lehiaketa bana jarri dute ikusgai Oñatin eta Antzuolan | 27

Imanol Urbieta
'Jakin'
aldizkariaren
sortzaileetako
batekin izan gara | 26

'ELGETA' TRIKITILARIARI OMENALDIA ELGETAN



JOSETXO ARANTZABAL

Omenaldi jaialdian aritu ziren hiru bikoteak: Laja eta Landakanda, Epelarre eta Zabale eta Tapia eta Leturia.

OMENALDIA ELGETAN | JAZINTO RIVAS 'ELGETA' TRIKITILARIAREN MENDEURRENA OSPATU ZUTEN ELGETAKO KAFE ANTZOKIAN

Umorean, musikaz eta dantzaz baliatuta aurkeztu zuten 'Elgeta'

Bete egin zen zapatuan Espaloia Jazinto Rivas 'Elgeta'-ren omenaldi ekitaldian. Musikariaren biografia liburua jarri zuten salgai jaialdi ostean Euskal Herriko Trikitixa elkarteko kideek

Goreti Elortza

Jazinto Rivas *Elgeta* soinu-jotzailearen jaio zela 100 urte bete direla eta, Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak eta Elgetako Udalak jai omenaldia antolatu zuten. *Intxuzabal* edota *Elgeta* ezizenez ezaguna zen musikariaren bizitzako pasarteak berreskuratu zituzten Patxi Santamaria eta Inazio Tolosa aktoreek Koldo Izagirre-ren ahotsaren laguntzarekin.

Taula gainean tabernari eta bezero jardun zuten aktoreek Eibarko saloi batean. Euren arteko elkarrizketek *Elgeta* bizi izan zen garaia irudikatu ziguten era umoretsuan. Era horretan, musikari txiki eta beltzaranak base-rriz baserri soinua irakasten jar-

dun zuela eta Eibarren igeltsero lanetan ibili zela kontatu ziguten, besteak beste. Bere irakaslea Eibarko bandako zuzendari bat izan omen zen. Garaiko dantza solte nahiz lotuen inguruko iritziak eta herritar-hiritar desberdintasunen nondik norakoak entzun ahal izan genituen han batutakoek.

KABARETA TAULA GAINEAN

Antzerkia musika eta dantzarekin tartekatu zuten kabaret antzeko emanaldian. Tapia eta Leturia, Laja eta Landakanda eta Epelarre eta Zabale trikitilariak izan ziren musika jarri zutenak. *Elgeta*-ren ikasle izandakoak batzuk, hurrengo belaunaldikoak besteak. Giro polita sortu zuten Espaa-

loian. Bikote bakoitzak bi pieza jo zituen eta hiru bikote gaztek dantza lotuak dantzatu zituzten. Hala, lehenagoko erromeriak berreskuratu zituzten.

Trikitilari Elkarteak gustura agertu da ekitaldiak izandako erantzunarekin

Publikoak ere parte hartu zuen jaialdi amaierako dantza solteetan

Emanaldiaren amaiera alde-
ra, *Elgeta*-ren gaineko dokumentu zerbait irakurri zituzten aktore eta dantzariak.

Emanaldia bukatutzat jo zenean eta publikoak hala eskatuta, berriro irten ziren taula gainera sei musikariak eta beste lau abestirekin amaitu zuten ordubete inguru iraun zuen omenaldi jaialdia.

Euskal Herriko Trikitilari Elkartekoek balorazio positiboa egin dute omenaldiaren inguruan. "Jende ugari batu zen ekitaldira eta, hortaz, oso gustura gaude izandako erantzunarekin", esan zigun Agurtzane Aizpuru Trikitixa Elkarteko kideak. Antolakuntza aldetik ere gustura agertu zen Aizpuru.

'ELGETA' TRIKITILARIARI OMENALDIA ELGETAN

• DENETIK EGON ZEN 'ELGETA' MAISUAREN MENDEURREN JAIALDIAN



ANTZERKIA EDO KABARETA? Patxi Santamaria eta Inazio Tolosa aktoreek umorez betetako elkarrizketekin berreskuratu zituzten Jazinto Rivas *Elgeta* trikitilariaren bizi-zako pasarte ezberdinak. Eibarko saloi bat irudikatu zuten taula gainean eta han jarritako barran jardun zuten zerbitzari eta bezero lanetan. Antzerkia hiru trikitilari bikoteren emanaldiarekin eta dantzariarekin tartekatatu zuten.



TRIKITILARI ETA DANTZARIAK. Tapia eta Leturia, Laja eta Landakanda eta Epelarra eta Zabale izan ziren, hurrenez hurren, jaialdiko taula gainean jai giroa sortu zuten bikoteak. Emanaldian zehar jotako piezak dantzatu zituzten hiru bikote gaztek. Trikitilariak doinu lotuak jo zituzten antzezlanean zehar eta amaiera alderako dantza soltean aritzeko zenbait arin-arin egin zituzten.



PUBLIKOA ERE ANIMATU ZEN. Dantza solteak ekitaldi amaierarako utzi zituzten, eta antzerkia tartekatzen zuten piezak lotuagoak izan ziren. Emanaldiaren azken momentuetan publikoak bat egin zuen dantzariarekin eta arin-arin bizi-biziak dantzatu zituzten. Giro aparta sortu zen sei musikariak taula gainean zeudela. Espaloiko publikoak behin eta berriz oihukatu zuen "beste bat!", gustura zeuden seinale...



TRIKITILARIAREN BIOGRAFIA SALGAI. Euskal Herriko Trikitilari Elkarteak *Jazinto Rivas Elgeta (1906-1964)* biografia liburua jarri zuen salgai emanaldiaren amaieran. Liburuak Iker Goenagaren hitzaurrea, partitura ugari eta CD bat dakartza. Diskoak 14 konposizio biltzen ditu, 60ko hamarkadan grabatutakoak. 15 euro balio du eta *Soinua paperean* bilduma berrian kaleratu dute. Ohiko liburu dendetan ere egongo da salgai.

Zurgintza eta Altzarigintza

Goi Mailako eta Erdi Mailako zikloak

Hasi zure etorkizuna gaurtik eraikitzen!

%90-ak
ikasketak bukatutakoan
lana aurkitzen du



Euskarazko
irakaskuntza ofiziala
eskaintzen dizugu



Enpreetan praktikak
egiteko aukera
izango duzu



- ▶ EKAINAREN 1etik-7ra AURRE MATRIKULAZIO EPEA
- ▶ EKAINAREN 30etik UZTAILAREN 6ra MATRIKULAZIO EPEA

1959tik
Urola
Lanbide Heziketa

MAIATZAK
25 eta 27an
ATE IREKI
JARDUNALDIAK

UROLA LANBIDE
HEZIKETA INSTITUTUA
Alamira Auzoa z/g
20720 AZKOITIA
Tel 943 852 174
azkoitia@urola.org
www.urola.org

ZUZENeko ROCKA | ZUZENeko ONENENETAKOAK DITUZTEN EUSKAL TALDEAK BATU GURA IZAN ZITUEN ZAPATUAN HERRI IRRATIAK 3.60 ARETOAN

Biok taldekoek bafleak leherrarazita, oholtza txikitu zuten Naiz Roxa-koek

Zuzenean soinu bortitzarekin eta muturreko proposamenekin jo zuten zapatuan Biok, Naiz Roxa eta Stupenda Jones taldeek Arrasaten

Jon Berezibar

Euskal oholtzetan azkenaldian egur handien ematen dabilzan talde gazteetatik hiru izan genituen zapatuan Arrasateko 3.60 aretoan. Herri Irratiak bilduta, bafleak astindu eta lehertzeko gogoarekin etorri ziren Stupenda Jones, Biok eta Naiz Roxa bandak. Nork bere izaerarekin, euskal rockaren osasun bikainaren erakusle izan ziren: Stupenda Jones, rock-and-roll klasikoagoa eginda, Biok, zur eta lur uzteko soinu indartsuarekin eta Naiz Roxa, azken urteetan Euskal Herrian egin den proposamenik apurtzaileenetakoarekin.

Hiru taldeak batzeko aitzakia ezin egokiagoa izan zen. Herri Irratiko *Sector Rock* saioan, hila-betetan gonbidatu moduan izan dituzten taldeei zuzenekoan ze taldek harritu dituen galdetu izan diete, eta erantzunetan Biok talde galdakoztarra errepikatzen zuten taldeek. Horrela, zuzeneko onenari saria eman zieten zapatuan Biok taldekoek; eta ez zen gutxiagorako izan.

Lehena jotzen, baina, Stupenda Jones laukotea izan zen. Gainontzeko oholtzakideak baino rock-and-rolleroago, behar moduko giroa eman zioten jaialdiaren hasierari. Saritu bizkai-



JOSETXO ARANTZABAL

Sariari ohore eginez, zuzeneko aparta egin zuten Biok-ekoek zapatuan.

tarrak izan ziren hurrenak jotzen. Zuzeneko ezin bortitzagoa aurkeztu zuten. Soinu kalitatez aparteko eta teknikoki ia hutsik gabe, muturreko metalari eusten dakitela frogatu zuten. Aparteko jo zuten, indartsu eta basati, jaso berri zuten saria hutsa ez zela baieztatuta.

Naiz Roxa-koen ikuskizun eroa bezain bortitza gaueko ezustekoa izan zen

Naiz Roxakoak ere ez ziren atzean gelditzeko asmoekin etorri. Jousilouluko buru ohiak banda berria errekrutatu eta proposamen ausart eta apurtzaile batekin itzuli da. Banda gaztea baina indartsua da eta egiten duten musika zaila. Hala ere, ez da pasatzen uzteko modukoa pasai-

tar hauen ikuskizuna. Muturreko musika egiten dute, zarata, hitzaren zentzurik onenean. Zur eta lur utziko zituen asko, baina interes nahikoa piztea ere lortu zuten, euskal eszenan gutxi ibili dituzten bideak hartzen dabil-tza-eta. Gertu jarraitu beharreko taldea inondik inora.

GREGORIO GALVEZ | IRRATI ESATARIA

“DJek kalte egin dutela uste dut, baina zuzeneko bonboaren modukorik ez dago”

J. B.

Herri Irratiko Sector Rock irratsaioko gidaria da Gregorio. Euskal rockean izen mitikoa da berea, irrati uhinetatik hainbat urtean euskal bandei emandako babes beroarengatik.

Euskal bandei emandako babesa handia izan da urte askoan.

Txalogarria iruditzen zait talde askok jotzeko egiten duten ahalegina, astero-astero, sarri baldintza kaxkarretan. Horretaz

gain, areto eta gaztetxei ere merezitakoa aitortu zaie, astero daukatelako zuzenekoan bat programatuta, traba guztien gainetik, eta kontzertuek daukaten arriskua gainean hartuta.

Gaur egun oso jende gutxi joaten da kontzertuetara; zergatik?

Estudiora ekartzen dugun jendeak beti aipatzen digu hori. Badaude banda handiak, Su Ta Gar eta Berri Txarrak kasu, beti erakartzen dutenak jendea, baina talde txikiekin ez da hori gertatzen. Tartean badaude Biok, Eraso eta halako taldeak, agian

lehen jende gehiago mugiarazten zutenak. Hala ere, zaletasuna egon badago eta eskaintzak handia izaten jarraitzen du. Zaletasun osasungarria da, gainera. Herri honetan kirolak eta rockak edo musika alternatiboak jende asko mugitzen du, bitxia da. **Zaletasuna eta musika oso interesgarria egiten duten taldeak egonda. Non dago akatsa?**

Euskal rock erradikalarekin eklosio antzeko bat egon zen, mezu politikoarengatik agian, eta hori galtzen joan da. Gaur egun erosotasuna izan daiteke jendea ez



Gregorio Galvez.

mugitzeko arrazoietako bat. DJek ere kalte handia egin dutela uste dut erosotasunaren kultura honetan, baina zuzeneko bonbo bat dagoen lekuan ken daitezela disko guztiak... Eskola zaharrekoa

naiz ni eta irratsaioan ere burla egiten diegu noizean behin. Moda da eta hedabideek ez dute laguntzen. *40 Principales*-i ezin zaio ezer eskatu, baina Euskadi Gazteak ere ezer gutxi egiten du euskal taldeen alde. Alde komertzialetik begiratuta, hala ere, ulergarria iruditzen zait. Nik zortea izan dut eta Herri Irratian beti izan dut babesa, zorionez.

Zaila da irrati txiki baten zuen txokoari eustea ala presio barik egiten duzue lan?

Nik 35 urte daramatzat Herri Irratian eta badute niregan konfiantza. Zuzendari guztiarekin *feeling* ona izan dut eta oraingo hau, Alex Arantzabal, rock-zale porrokatua da, Lou Reed-en zalea, eta egin dizkiodan proposamenekin pozarren egon da beti. Alde horretatik zortea daukagu.



JOSETXO ARANTZABAL

Disko berriko kantuak aurkeztu zituen Ozen taldeak barikuan.

Rock-and-rolla eta heavy melodikoa HUHEZIKo jaian

Arrasateko bi taldek jo zuten Eskoriatzako fakultateko aparkalekuan egubakoitzean: Ozen eta The Five Twisters taldeek, hain justu

Jon Berezibar

Arrasateko Ozen eta The Five Twisters taldeen kontzertuekin ospatu zuten Mondragon Unibertsitateko HUHEZIKo fakultateko ikasleek euren eguna. Egun guztiko egitaraua prestatu zuten Hezkuntza eta Humanitateen ikasleek, goizean Joko Olinpikoekin hasi eta arratsaldeko batukada-kalejirara arte. Eta gaueko ordu txikiak arte luzatu zuten festa Eskoriatzako fakultatean. Aipatutako kontzertuak, berriz, gauean izan ziren.

Irekitze lanez The Five Twisters gazteak arduratu ziren. Rock-and-rolla egiten du Arrasateko banda hasiberri horrek eta txonetan behar moduko giroa ipini zuten, han inguruan poteoan

Ozenek 'Mundu perfektua' disko berria aurkeztu zuen zuzenen, soinu berriarekin

zebiltzanak animatuta. Eta talde berria bai, baina musikan beterranoago Ozen-ekoek jo zuten hurrengo.

'MUNDU PERFEKTUA'

Diskoa kaleratu berri dute arrasatearrek: *Mundu perfektua*. Heavytik hasiera baten edanda, melodiarantz jo eta maketa denboretan baino pop-rock zaleago ageri dira egun. Beharrezkoa denean indar nahikoarekin eta abesti berrietan heavyaz bestalde doazen doinuekin disko berria aurkeztu zuten eta eskupeko moduan Sen taldearen bertsioa ere egin zuten, euren eragin nabarietako bat da-eta. Kontzertutik kontzertura, ikasleek ere euren ekarpena egin eta hainbat bideo-sorkuntza aurkeztu zituzten.

Aretxabaletarrek Atzegiko film laburren lehiaketaren hirugarren saria jaso dute

'Bidaia baten ametsa' izeneko film laburrarekin irabazi dute saria Aratz elkarteko kideek

M.B.

Aretxabaletako Aratz elkarteko kideak saria beso azpian zutela itzuli ziren eguenean Donostiatik. Han egin zuen Atzegi elkarteak I. Film Laburren Lehiaketaren sari emate ekitaldia, eta aretxabaletarrek hirugarrena jaso zuten.

Bidaia baten ametsa lanarekin aurkeztu ziren lehiaketara eta horrexek eman die hirugarren saria. Lehenengoa Irun-

go film batek irabazi zuen eta bigarrena Alacanteko beste batek. Guztira 23 lanek hartu dute parte lehiaketan.

VENEZIAKO INAUTERIAK

Aretxabaletarren filmak bikote baten istorioa kontatzen du. Veneziako inauteriekin egiten dute amets, baina harako bidaia garestiegia delako ezin dira hara joan, ala bai? Lagunen laguntzarekin eta imajinarioarekin guztia da posible.



ASTELEHENKO GOIENKARIA

Aretxabaletako plaza San Marcos plaza bihurtu zuten filmaketarako.



ASTELEHENKO GOIENKARIA

Pozez zorutzen jaso zuten saria eguenean Aratzeko kideek Donostian.

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

2006-2007

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

agorosabel@eps.mondragon.edu
Tel: 943 73 96 30
www.eps.mondragon.edu

ATE IREKIKO JARDUNALDIA

2006-2007 MGEP RDPII

EGUNA	ORDUA	LEKUA	TITULUEN INGURUKO INFORMAZIOA
2006.05.24	18:00	5001	<ul style="list-style-type: none"> • Mekanizatzeko Bidezko Ekoizpena. • Proiektu Mekanikoen Garapena. • Industri Ekipoaren Mantentzea. • Sistema Informatikoen Administrazioa. • Informatika-Aplikazioen Garapena • Telekomunikazio eta Informatika Sistemak. • Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak.

IZENEMATEA: ekainaren 1etik 7ra
ORDUTEGIA: 8:30etatik 12:00etara
14:30etatik 17:30etara

Musikari, euskarari eta ikastolei dedikatutako bizitza izan da Imanol Urbieta zarauztarrarena. Hura izan zen 'Jakín' aldizkarian idazten lehenetakoa,

eta horregatik egin zioten omenaldia eguenean Arantzazun. Aldizkaria sortzeaz gain, libidide zabala du euskaltzale horrek haurrentzako kantugintzan eta ikastolen

alde lanean. Hala, hainbat omenaldi jaso ditu azken urteetan eta eguenean ere hunkituta jaso zuen 'Jakín'-ekoen esker ona, aspaldiko lagunaren artean.

IMANOL URBIETA | 'JAKÍN' ALDIZKARIAREN SORTZAILEETAKO BAT

"Euskararekiko maitasunak eta konpromisoak bultzatuta hasi ginen 'Jakín'-en idazten"

Jon Berezibar

Horrenbeste urteren ostean omenaldia jasotzeak hunkitu egin zaitu, ezta?

Esan daiteke omenaldiarekin 40 edo 50 urte gaztetu naizela. Hasierako urte haietara itzularazi naute hemen ikusitako ezagun eta aspaldiko lekuek, eta, horrenbeste urte iragan direla ikusita, gero eta zaharrago sentitzen naiz momentu honetan. Arantzazun egin nituen urteak etorri zaizkit gogora, hemengo mendiak, txokoak, lagunak ikusi ditudanean.

Jakín aldizkariaren sortzaileetako bat izateagatik omendu zaituzte gaur, baina ez da azkenaldian jaso duzun omenaldi bakarra.

Bai, musika munduan horrenbeste urte egiteagatik ere egin zidaten omenaldi xume bat Zarautzen. Kasualitatea ere bada neurri baten. Zarautzarrak azkenaldian harrotuta dabilta txakolinarekin, tartean getariarrak ere badabilta, eta hala bildu ginen omenaldirako. Diploma eta guzti eman zidaten, baina "zergatik, ordea!", galdetzen nion nire buruari.

Ez zara, ba, lan gutxi egin duten horietakoa: ikastoletan, abestien sorkuntzan, euskararen alde...

Guk bezain beste eta gehiago askok egin dute. Nik txakolina edan dut, edan beharrekoa, eta agian horregatik izan da. Atentziorik eman gabe egin izan dugu beti lan.

Horren gutxirako ere ez da izango, Egañak berak zure biografia idatzi du-eta. Zer sentitzen da norberaren bizitza liburu baten jasota ikusita?

Ilusio handia egiten du horrek. Andoni, gainera, lagun handia da. Zarauzko ikastolan egindako urteetan oinarritzen da batez ere lana. Adin batera heldu nintzenean ikastolara maisu moduan sartzea erabaki nuen. Behar zituzten irakasleak baina garai haietan, noski, ilegalak zen euskaraz aritu eta hitz egitea. Orduan lan handia egin genuen, baina hain zen handia nire ardurara eta zerbait egiteko nahia, ikastolen munduan sartu nintzen, eta urte asko egin ditut Zarauzko ikastolan. Bertan maisu nintzela ezagutu nuen Andoni bera eta haren familia guztia. Elkar ezagutzeko oso aukera polita izan genuen, eta hortik datorkigu harremana.

Jakín-era itzulita, orain dela 50 urte uste zenuten euskara eta euskal kultura gaur egun dagoen leku-

ra iritsi zitekeela? Nola ikusten zenuzuten gauzak orduantxe?

Orduan ere gauza asko egiten ziren, baina ideiarik ere ez genuen nola joango zen guztia. Euskararen aldetik, guk baino meritu handiagoa izan dute Iñaki Bereziartuak edo Fernando Mendizabalek, baina ni, lagun izanda, beti nengoen inguruan eta ahal zena egiten saiatzen nintzen. Beti tokatzen da kolaboratzea edo lagunei laguntzatxoa ematea. Ni benetan poziki nago hemen, baina meritua besteie aitortu behar diet, haiek egindako lana benetan eskertzekoa izan da-eta, ni baino meritu dezent handiagoarekin.

Merituak meritu, lana ez da batre erraza izan, beti izan dituzue eta trabak zentsura dela, debekuak direla...

Hori *Jakín*-en historia da eta guk hasierako urteak egin genituen, hasierako zaunka horiek egin zituztenak izan ginen.

Ze asmok bultzatu zintuzteten euskaraz idazten hastera?

Arantzazura iritsi berritan hasi ginen *Jakín*-ekin. Hemen euskarak bere balioa zeukan, baina gure giro guztia erdarazkoa zen. Guk, hala ere, eta eskerrak, beti gure etxeko eta kaleko hizkuntzarekin jarraitu genuen, hori zen-eta munduko gauzarik errazena guretzat, baina ikasgai guztiak erdaraz ematen genituen. Horrek piztu zigun nahia. Hura konpromiso guztiz pertsonala izan zen, bakoitzak hartu genuena. Arantzazuko harremanak euskaraz egiten genituen, euskal jendea zegoen hemen eta euskararekiko maitasuna piztu zidaten Arantzazun askok, eta horrek bultzatzen gintuen. Nik erdaraz

"Arantzazura etorri ginenean euskal jendea egon arren, erdaraz egiten genituen eskola guztiak"

"Euskararekiko ardurak bultzatu ninduen ikastolen munduan sartzera, garai haietan ilegalak izan arren"



JON BEREZIBAR

Gandiaga Topagunean egin zioten omenaldia eguenean Imanol Urbietari.

ikasi nuen eta gustatzen zitzaidan, baina euskara zen gurea.

Sentimendu horrek irauten du gaur egun?

Euskararen kontua itsu-itsuan jarraitzen dut nik. Idatzi baino gehiago musikan egin dut nik lan. Batez ere jendeak hori

eskatzen zidalako, eta oraindik ere nire bizitzako zati garrantzitsuetako bat da. Musikarako dohaina banuen eta garai haietan ez zegoen ezer, beraz, guk egin behar genuen eta umeendako kantu asko eta asko egin ditugu urtetan zehar.

Esker ona Arantzazuko frantziskotarrei

Jakintza euskaraz zabaltzen 50 urte beteko ditu aurten *Jakín* aldizkariak. Lehen zenbakiak orain mende erdi Arantzazun bertan atera zituzten argitara. Hala, urteurren ekitaldiak aurkeztu eta hasierako sustatzaileei gorazarre egiteko ekitaldia egin zuten eguenean Arantzazuko Gandiaga Topagunean.

Iñaki Bastarrika, Iñaki Bereziartua, Fernando Mendizabal eta Imanol Urbieta izan ziren hasierako bultzatzaile horiek eta hunkituta jaso zuten laurek *Jakín*-ekoek emandako oroigarria. Aspaldiko lagunekin eta aldizkari zuzendaritzan ibilitako 45 kideekin bat egiteko aukera izan zuten, eta, saioa

aprobetxatuta, urteurrena ospatzeko ekitaldiak iragarri zituzten. Testuen digitalizazioa izango da horietako bat, ekainean aurkeztuko dutena eta sareko erabiltzaileen esku *Jakín*-ek argitaratutakoak ipiniko dituenak. Ekitaldi potoloenak udazkenean egingo dituzte, baina horren aurretik harpidetza kanpaina abiarazi gura dute 1.000 harpidedun berri egiteko asmoarekin. Ekitaldian, Gandiaga topagunean plaka bat ipini zuten, frantziskotarrek *Jakín* aldizkariari betidanik eskainitako babesa eskertzeko. Joan Mari Torrealdai, aldizkari zuzendariak, azalerratu zuen eskerak emateko plaka.



Jaietako irudia eta esaldia aukeratzeko lehiaketak deitu dituzte Eskoriatzan

San Pedroetako egitarauko azala aukeratzeko lehiaketan edozeinek parte har dezake, ekainaren 6a baino lehen

Leire Kortabarria

Eskoriatzako San Pedro jaietara begira, bi lehiaketan parte hartzeko aukera dago.

Hasteko, jaietako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa antolatuta du udalak. Edozeinek parte har dezake, inolako mugarik gabe. Teknika libre da, baina baldintza gutxi batzuk daude: hala, jai egitarauaren neurria 21 x 10 zentimetro denez, kartelak ere neurri horretakoa izan beharko du; bestetik, derrigorrez agertu beharreko testua 2006ko San Pedro jaiak Eskoriatza, ekainak 28, 29 eta 30 eta uztailek 1 da.

Kartelak udaletxera edo kultur etxera eraman beharko dira

ekainaren 6ko 13:00ak baino lehen. Lelo sistema bidez aurkeztu behar dira.

Irabazleak 300 euroko saria jasoko du, eta bere lana jai egitarauan agertuko da eta jaietako irudia izango da. Kartel irabazlea udalaren esku geldituko da; horrez gain, egoki ikusten badu, erakusketa antolatuko du aurkeztutako lan guztiekin.

ESALDIA

Jaiekin lotutako beste lehiaketa Eskoriatzako Udal Euskarazko Azpibatzordeak antolatuta du, eta jaietako esaldia asmatzeko sariketa da.

Lehiaketa horretan 13 urtetik gorakoek parte har dezake, gutxienez hiru eta gehienez bost lagunek osatutako taldeetan. Ekainaren 4a baino lehen, udaletxean edo kultura etxean entregatu beharko dituzte jaiak bultzatzeko esaldiak, gura bezain beste. Aukeratzeko esaldia plazako horma-irudi baten ipiniko dute, eta beste batzuekin pegatinak egingo dituzte. Sariak dira afaria eta 50 euro, hurrenez hurren.

Labur

Mongoliaren inguruko ikus-entzunezkoa izango da Bergaran

Mongolia: la tierra de Genghis Khan izeneko ikus-entzunezkoaz gozatzeko modua izango da etzi, eguaztena. Bergarako kultura etxean emango du egileak, Angel Cuedok, 19:00etan. Mundumira jaialdiak antolatutako emanaldia da.

Jaialdi horren beraren eskutik, argazki erakusketa batzuk dauka Oñatiko kultura etxean hilaren 28ra arte: *Sahara, 30 urte justizia eskatzen* delakoa eta Nairobitarra autobusak egindako bidaien gainekoa.

Emakumearen buruhausteen gaineko antzezlanak egingo dute

Ursia Gago aktoreak *Por las gracias de Dios...* izeneko antzezlanak egingo du hilaren 25ean, eguena, Arrasate Emakume Txokoak antolatuta. Emanaldia euren egoitzan izango da, 19:00etan. Ursia Gago galiziarra da, eta emakumeen gaineko antzezlanak sarri egin izan ditu Galizian eta beste leku batzuetan.

Bakarrizketaren bitartez eta umorea erabiliaz, emakumeak bizi dituen arazoak eta buruhaustea azaltzen ditu Gagok: norbere irudiarena eta bakardadearena, besteak beste.

Perkusio eta dantza afrikarren ikastaroa izango da Eskoriatzan

Perkusioaren eta dantza afrikarren gaineko bi eguneko ikastaroa antolatu du Eskoriatzako udalak, eta izenemate epea zabalik dago etzira, eguaztena, bitartean, kultura etxean (943 71 46 88). Bakar-rerako edo bietarako izena eman daiteke: biak aukeratzeko gero, 40 euro da, eta bakarra, 25 euro. Egun bakarrek matrikula ere 25 euro da.

Ikastaroa zapatuan eta domekan egingo dute, 10:00etatik 12:00etara perkusioarena eta 12:00etatik 14:00etara dantzena.

Hitzorduk



MARI FRAN ERAÑA EIBARTARRAREN MARGOLANAK IKUSTEKO AUKERA | Elgetako Espaloia antzokian dago erakusketa, eta maiatz bukaerara arte egongo da zabalik

Elgetako Espaloia antzokian beti dago erakusketaren bat zabalik. Egunotan, Mari Fran Eraña margolari eibartarraren lanak ikusteko aukera dago, maiatz bukaerara arte, hain zuzen.

Urteak dira Eraña Arrate Kultur Elkarteak margolaritza eskolan hasi zela margotzen ikas-

ten. Elisabet Eguren izan zuen irakasle. Olioa da bere teknika gogokoena, baina akuarelak ere egingo ditu noizean behin.

Aire zabaleko margo lehiaketatan parte hartutakoa da: Bergaran, Deban, Donostian, Bilbon... Eibarren abenduan erakusteko prestatzen ari da.

ZINEMA |

• **Firewall** filmaren emanaldia izango da Arrasaten

Gaur, astelehena, emango dute film hori Amaia antzokian, 19:30ean.

• **Ice age 2** filma ikusteko aukera dago Oñatin

Gaur, astelehena, emango dute film hori Oñatiko kultura etxean, 20:30ean.

• **Volter** filmaren emanaldia izango da Arrasaten

Gaur, astelehena, dago film hori ikusteko aukera Amaia antzokian, 19:30ean.

• **Wilbur se quiere suicidar** filma emango dute Elgetan

Etzi, eguaztena, emango dute film hori Espaloia antzokian, 21:30ean.

• **Manderlay** filma emango dute Arrasaten

Egueneko zineklub saioan emango dute film hori. Amaia antzokian izango da, 20:30ean.

ERAKUSKETAK |

• **Xabier de Zerio** eskultoreak **Urretxun** du erakusketa

Xabier de Zerio bergararrak eskultura lanak ditu erakusketan Urretxuko Juan de Lizarazu aretoan ekainaren 11ra bitartean.

• **Iñaki Ibartzabal** margolari **bergararraren** lanak

Iñaki Ibartzabal bergararrak bere lehen margo erakusketa aurkeztu du. Bergarako Nahi-

kari tabernan ditu hamasei margolan. Masterreka kalean dago taberna hori. Erakusketa hil bukaerara arte dago zabalik.

• **Munduko 150 musika tresna** dago erakusketan

Ikusteko musika delako erakusketa dago Bergarako Aroztegi aretoan. Mundu osoko 75 kulturaren 150 musika tresna batzen ditu, baita horiekin egindako musika ere. Artegune elkarteak antolatzen du erakusketa. Maiatzaren 28ra arte dago zabalik.

• **Borondatezko lanaren** inguruko erakusketa

Borondatezko lana, pertsona orori zabaltzen zaion atea delako erakusketa ipini dute Debagoieneko GKE batzuek Monterronen. Hilaren 25era arte dago zabalik.

• **Mundumiraren argazki** erakusketak bi herritan

Sahara: 30 urte justizia aldarrikatzen izeneko erakusketa dago Oñatin; eta *Felix Iñurra-tegi-Baltistan* delakoa Antzuolan. Hilaren 28ra arte daude zabalik.

LEHIAKETAK |

• **San Juanetarako kartel** lehiaketa Arrasaten

Udalak deitutako lehiaketa. 2006 San Juan Jaiak Arrasate testua eraman beharko dute lanek. Egileak kontuan izan behar du aukeratzeko irudia

jaietako egitarauaren azalean erabiliko dela. Jai egitarauaren neurria 28 x 21 cm-koa izango da. Irabazleak 750 euroko saria jasoko du. Lanak jasotzeko epea maiatzaren 19ra arte dago zabalik.

• **22. Bergara Hiria** argazki lehiaketa deitu dute

Zuri-beltzeko eta koloretako kategoriak ipini dituzte. Gehienez ere, lau argazki aurkez ditzake norberak, 30 x 40 zentimetroko kartulinatan. Lanak kultura etxean entregatu behar dira. Mugaeguna maiatzaren 23a da.

• **Gomendatzen dizut...**

lehiaketan parte har daiteke Arrasate eta Bergarako gazte informazio zerbitzuek Gomendatzen dizut... lehiaketa deitu dute. Oporren gaineko gomendioak eskatzen dituzte. Sariak dira, Arrasaten eta Bergaran, 500 euroko balioa duen oporralditxo bat; eta Arrasaten, horrez gain, 17 urtetik behar-rakoendako, 300 euroko irteera bat.

MUSIKA |

• **Kontzertu didaktikoa** egingo dute Oñatiko ikasleendako

Musika eskolako irakasleek Lehen Hezkuntzako ikasleendako kontzertu didaktikoa egingo dute etzi, eguaztena, 15:00etan. Santa Ana antzokian izango da saioa.

Eguraldia



Lainotsu hasiko dugu astea, eta eguaztenetik aurrera eguzkia nagusi

Goiz partean eguraldi gozoa egingo du hegoaldeko haizearen ukituari esker. Giroa epea eta itxurosoa izango da eguerdira arte, baina orduan aldatu egingo da haizea eta okerrera egingo du. Litekeena da euria ere egitea.

Bihar, martitzena, estalita esnatuko da zerua, eta, urdin-

gune batzuk izango diren arren, euria ere egingo du. Eguaztenean beste itxura bat izango du eguraldiak. Tenperaturak gora egingo du eta lainoak gutxitzen joango dira. Eguzkia bete-betean azalduko zaigu. Eta halaxe jarraituko du, gainera, eguenean eta egubakoitzean ere.

Goardiako farmaziak

ARRASATE

Astelehena, 22	Azkoaga	Iturriotz, 17 (943 79 79 99)
Martitzena, 23	Corcuera	Maisu Aranbarri, 1 (943 79 22 26)
Eguaztena, 24	Irizar	Erquin, 11 (943 79 12 39)
Eguena, 25	Amezua	Santa Marina, 32 (943 79 09 74)
Egubakoitza, 26	Morales	Araba etorbidea, 14 (943 79 18 65)

BERGARA

Astelehena, 22	Mozos	Iparragirre, 2 (943 76 12 15)
Martitzena, 23	Camacho	Oxirondo, 4 (943 76 11 74)
Eguaztena, 24	Zabala	Barrenkalea, 25 (943 76 16 87)
Eguena, 25	Guallar	San Antonio, 5 (943 76 11 05)
Egubakoitza, 26	Estella	Matxiategi, 5 (943 76 19 63)

OÑATI

Astelehena, 22	Juldain	Kale Barria, 6 (943 78 11 28)
Martitzena, 23	Juldain	Kale Barria, 6 (943 78 11 28)
Eguaztena, 24	Anduaga	San Lorentzo, 3 (943 78 21 16)
Eguena, 25	Juldain	Kale Barria, 6 (943 78 11 28)
Egubakoitza, 26	Barrenetxea	Kale Kale Zaharra,1 (943 78 01 22)

ARETXABALETA

Astelehena, 22	Fraile	Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99)
Martitzena, 23	Fraile	Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99)
Eguaztena, 24	Fraile	Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99)
Eguena, 25	Fraile	Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99)
Egubakoitza, 26	Fraile	Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99)

Telefono jakingarriak



OSASUNA / LARRIALDIAK

OSAKIDETZA (Larriald.)	943 46 11 11
DYA (Orokorra)	943 46 46 22
DYA (Antzuola)	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Ertzaintza	
Arrasate	943 79 71 99
Bergara	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko Ospital.	943 03 53 00
Antzuola	943 76 62 23
Aramaio	945 44 53 40
Aretxabaleta	943 71 19 59
Bergara	943 03 54 00
Elgeta	943 03 54 00
Eskoriatza	943 71 44 52
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 03 54 30
Hies Ekimena	943 79 26 99
Udaltzaingoak	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 14 39
Aretxabaleta	943 71 18 63
Bergara	943 77 91 06

Eskoriatza	943 71 44 07	Laixan / Oñati	943 71 63 11
Leintz Gatzaga	943 71 47 46	Txirritola / Aram.	945 44 52 66
Oñati	943 78 04 11		

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	902 54 32 10
PESA	902 10 12 10
Taxiak	
Antzuola	943 76 61 81
Arrasate	943 79 12 22
Aramaio	945 44 50 33
Aretxabaleta	943 77 12 64
Bergara	943 79 12 22
Eskoriatza	943 71 40 59
Oñati	943 78 03 65
RENFE	902 24 02 02

DEBAGOIENA

Mankomunitatea	943 79 33 99
Hiltzgia (Zubillaga)	943 78 15 12
Mendi nekazaritza elk.	943 76 25 47
Nekazaritza Ganbera	943 76 10 15
Zerga Bulegoa	943 76 58 63
Euskara Taldeak	
Debagune	943 77 12 28
AED / Arrasate	943 71 21 17
Axtroki / Eskoriatza	943 71 54 34
Goibeko / Elgeta	943 78 90 85
Loramendi / Aretx.	943 77 09 70
Idolaz / Antzuola	943 78 70 56
Jardun / Bergara	943 76 08 19

Laixan / Oñati	943 71 63 11
Txirritola / Aram.	945 44 52 66

Hondakindegia Alternatiboak

Arrasate	943 77 11 43
Bergara	943 76 44 42
Oñati	943 78 36 67

Kiroldegiak

Aramaio	945 44 53 35
Arrasate	943 77 16 77
Aretxabaleta	943 71 26 28
Bergara	943 76 56 41
Elgeta	943 76 82 84
Eskoriatza	943 71 53 28
Oñati	943 71 63 75

Kultura Etxeak

Antzuola	943 76 60 65
Aramaio	945 44 53 74
Arrasate	943 77 01 05
Aretxabaleta	943 71 10 27
Bergara	943 77 91 58
Eskoriatza	943 71 46 88
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 03 53

Udalak

Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 09 00
Aretxabaleta	943 71 18 62
Bergara	943 77 91 00
Elgeta	943 76 80 22
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11

Zozketak

BONOLOTOA

Astelehena, 15
12 • 16 • 17 • 23 • 33 • 35
Osagarria: 24 | Itzulketak: 6

Martitzena, 16
17 • 29 • 30 • 33 • 36 • 45
Osagarria: 32 | Itzulketak: 3

Eguaztena, 17
4 • 8 • 13 • 22 • 36 • 44
Osagarria: 49 | Itzulketak: 0

Egubakoitza, 19
11 • 19 • 32 • 38 • 39 • 46
Osagarria: 41 | Itzulketak: 0

ONCE

Astelehena, 15 **32.060**

Martitzena, 16 **51.593**

Eguaztena, 17 **99.359**

Eguena, 18 **58.188**

Egubakoitza, 19 **24.357**

Kupoitzarra (076 seriea)

Domeka 21 **50.778**

Kupoitzarra (010 seriea)

LOTERIA PRIMITIBOA

Eguena, 18
16 • 30 • 36 • 41 • 45 • 46
Osagarria: 22 | Itzulketak: 7

Zapatua, 20
1 • 12 • 15 • 19 • 35 • 36
Osagarria: 10 | Itzulketak: 6

Zapatua, 20 (Saritzarra)
15 • 38 • 42 • 44 • 52
Itzulketak: 7

Gazte zerbitzuak

BEKAK |

• **Ikerketa.** Eusko Jaurlaritzan. EAEko gaztediaren gaineko ikerketa proiektuetarako beka. Epea: ekainak 2.

EKINTZAK |

• **Boluntarioendako nazioarteko auzolandegiak.** SCI. Lan boluntarioa: Europa, AEB, Korea, Australia... zehar. <http://www.nodo50.org/siv/campos.html>. Epea: plazak bete arte.

IKASTAROAK |

• **Laneko segurtasun goi mailako teknikaria.** Langabeendako. Fondo Formacion Eskadi. Epea: ekainak 29. (Plaza mugatuak dira).
• **Langabeak.** Langabeendako mantentze-lanetako argiketari ikastaroa Elgoibarren.

Epea: plazak bete arte.

• **UNED.** Bergara. Udako ikastaroak antolatu ditu. <http://www.uned.es/ca-bergara/udaikastaroak/uda06/potada.htm>.

LEHIAKETAK |

• **Argazkia.** Bergara. 22. Bergara Hiria Argazki lehiaketa. Argazkiak zuri-beltzean edota koloretan aurkez daitezke. Gainera, edozein teknika edo prozedura onartzen da. Epea: maiatzak 23.
• **Kartel lehiaketa.** Errenteriako Udala. Madalenak 2006. Teknikak: marrazkia, pintura, argazkigintza, collage edo antzeko beste batzuk. Epea: ekainak 2.
• **Literatura.** Kutxa Fundazioa. Kutxa Donostia Hiria. Ipuina eta antzerkia. Epea: urriak 16.

ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:
Biteri etorbidea 3. 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net
BERGARAKO GAZTEENDAKO
INFORMAZIO GUNEA:
Kultura etxea. 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

OÑATIKO GAZTEENDAKO
INFORMAZIO GUNEA:
Foruen plaza 4. 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net



Bertan salgai

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astlehenean, aste bukaera osoa

Antzuola:
• Altzarte okindegia
• Martin okindegia

Elgeta:
• Kioskoa

Bergara:
• Bolintxo okindegia
• Ogizun okindegia
• Konde okindegia
• Olabe okindegia
• Mizpildi okindegia
• Plazako Kioskoa
• Txurrerua Kioskoa

Arrasate:
• Eroski merkatal guneko prentsa txokoa
• Balantzategi kioskoa
• Portaloiko kioskoa
• Usue paper denda
• Bolintxo Okindegia
• Kurruko okindegia

Aretxabaleta:
• Errasti kioskoa
• Ibarra estankoa

Eskoriatza:
• Dorleta liburudenda

Leintz Gatzaga:
• Labidea

Aramaio:
• Plazako kioskoa

Oñati:
• Haritza Kioskoa
• Ibarrondo Kioskoa
• Eskolatxo okindegia
• Arantxa okindegia
• Irizar okindegia
• Ogibari okindegia
• Olakua okindegia
• San Lorentzo okindegia
• Errota okindegia

Zorion agurrak



ARRASATE
Nekane Atxa
Maiatzaren 19an, 20 urte. Zorionak! Etxeko guztien partetik.



ARRASATE
Iñigo Apraiz
Maiatzaren 22an, urtebetetzea. Urte askotarako. Koadrilakoak.



ARRASATE
Aitor Iraeta
Maiatzaren 24an, 9 urte. Zorionak! Etxeko guztien partetik.



ARRASATE
Naroa Agirre
Maiatzaren 24an, 3 urte. Zorionak eta muxu bat! Etxeko partetik.



ARRASATE
Irati Lizarralde
Maiatzaren 27an, 3 urte. Zorionak eta muxu bat! Etxekoak.



ARRASATE
Natali Martinez
Maiatzaren 28an, urtetetzea. Zorionak, Natali! Goienako lankideak.



BERGARA
Ane Barrañan
Maiatzaren 10ean, 13 urte. Zorionak eta urte askotarako! Gurasoak eta Jon.



BERGARA
Saioa Garin
Maiatzaren 16an. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko partetik.



BERGARA
Mikel Gutierrez
Maiatzaren 21ean, 8 urte. Zorionak eta urte askotarako! Gurasoak eta Aitzol.



BERGARA
Miren Urrea
Maiatzaren 24an, 7 urte. Zorionak eta urte askotarako! Gurasoak eta Jone.



BERGARA
Alex Arteaga
Maiatzaren 25ean, 9 urte. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak.



BERGARA
Ander Lasa
Maiatzaren 28an, 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat. Etxekoak.



OÑATI
Ane Agirre
Maiatzaren 16an, 13 urte. Zorionak! Etxekoak, Irene eta Iñigo.



OÑATI
Asier Zubiagirre
Maiatzaren 20an, 2 urte. Zorionak eta muxu bat. Etxeko guztien partetik.



OÑATI
Nerea Zelaia
Maiatzaren 20an, 6 urte. Zorionak eta urte askotarako! Familiakoak.



ARETXABALETA
Ander Urribarren
Maiatzaren 20an, 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat. Etxeko guztiak.



ARETXABALETA
Julen Urreita
Maiatzaren 22an, 8 urte. Zorionak. Aita, ama eta Andoni.



ESKORIATZA
Alexander Sanchez
Maiatzaren 20an, 12 urte. Zorionak eta muxu handi bat. Etxeko guztiak.

Hildakoak

Ignazio Zubilaga Leunda
Antzuolan, maiatzaren 20an. 80 urte.

Javier Iturbe Linzoain
Bergaran, maiatzaren 20an. 50 urte.

Xabin Egaña Azurmendi
Oñatin, maiatzaren 21ean. 48 urte.

Jaiotakoak



Maren Atxa Irizar
Antzuola • 3,620 Kg. Maiatzak 15.
Gurasoak: Aitor (Aretxabaleta) eta Aintzane (Oñati). Argazkian umea gurasoekin.



Uxue Arexolaleiba Erretolatza
Arrasate • 3,480 Kg. Maiatzak 18.
Gurasoak: Gatxi (Arrasate) eta Aitziber (Arrasate). Argazkian Uxue aitaitarekin.



Alaitz Urtzelai Goia
Aretxabaleta • 3,000 Kg. Maiatzak 18. Gurasoak: Iñaki (Aretxabaleta) eta Maider (Aretxabaleta). Argazkian bapo lo.




Saioa Nabero Marto
Arrasate • 3,300 Kg. Maiatzak 19.
Gurasoak: Angel (Arrasate) eta M. Jesus (Arrasate). Argazkian umea amarekin.



Ibai Fernandez Vazquez
Arrasate • 2,200 Kg. Maiatzak 20.
Gurasoak: Marmi (Arrasate) eta Loles (Bilbo). Argazkian umea kuman.



Alaitz Etxebarria Maortua
Arrasate • 3,270 Kg. Maiatzak 20.
Gurasoak: Atarratz (Arrasate) eta Nagore (Arrasate). Argazkian Alaitz bapo lo.



**ESKELAK
ASTELEHENKO
GOIENKARIAN**

85 euro
943 25 05 02

Zoriondu ARRASATE IRRATIAN



Ikaskideak, lagunak edo senitartekoak zoriondu nahi badituzu, **ARRASATE IRRATIAK** egunero ematen dizu aukera hori.

Bidali eskaria: irratia@goiena.com helbidera edo deitu 943 71 17 31 telefonora.

Egunero,
zorion agurren tartea
ARRASATE IRRATIAN

FM107.7

**ARRASATE
IRRATIA**

Gaur irratian

Arrasate Irratia

FM 107.7

'Igo autobusera' | 10:30

Aretxabaletako Atzegi eta Italiako Giroa

Atzegi elkarteak antolatutako film laburren sariketan Aretxabaletako taldeak hirugarren saria eskuratu du. Maialen Garcia begiraleak emango du horren berri. Jon Oregirekin Italiako Giroaz ere arituko dira.

Oñati Irratia

FM 107.4

'Egurdiko saioa' | 12:15

Mundumira jaialdiko irteerak aztergai

Mundumira jaialdia aztergai izango dute astean zehar Oñati Irratian. Astelehenean Mankomunitateko Turismo arduradun Ana Heriz elkarrizketatu du. Antolatutako irteeren berri emango du Herizek.

Euskadi Irratia

FM 104.4

'Faktoria' | 11:05

Cannesko jaialdiaren berri Mikel Olaziregirekin

Radio Euskadi

FM 98.2

'Boulevard' | 10:30

Emakumeen bizi-itxaropena aztergai

Herri Irratia

FM 99.8

'Kalez kale' | 11:30

Aizkorri Aratz Parke Naturala

GOITB programazioa

Astelehena, 22



Debaqoieneko albisteak
14:45 eta 19:45

Egunak emandako albisteak jarraitzeko aukera izango duzue GOITBko albistegietan. Deiane Arrietak eta Julen Iriondok aurkeztuta.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Behazulo.
- 14:15 Eitze beroa: Pasta freskoa.
- 14:30 Ml. Eguraldia eta zerbitzuak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Munduari bueltaka: Argentina.
- 15:30 Ml. Eguraldia eta zerbitzuak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Ilunpean.
- 16:15 Klip@k.
- 16:30 Ml. Eguraldia eta zerbitzuak.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Didjeridu.
- 17:30 Zera dio.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Erreportajea.
- 18:15 Sustraia.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klip@k.
- 19:15 Ilunpean.
- 19:45 Albisteak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Harmailatik: ALoña Mendi futbol taldea hirugarren mailarako bidean.
- 21:45 Albisteak.
- 22:15 Harmailatik.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Jazz zikloa.
- 23:45 Albisteak.
- 00:15 Amaiera.

Martitzena, 23



'Berbaire': gizarte eta politika gaiak
22:15

Gizarte eta politika gaiak jorratuko dituzte *Berbaire* saioan. Aste honetako gonbidatuak: Ander Rodriguez (argazkian), Maite Aristegi eta Jon Molina.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Jazz zikloa.
- 14:15 Zera dio.
- 14:30 Ml. Eguraldia eta zerbitzuak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Elkartasun bideak.
- 15:30 Ml. Eguraldia eta zerbitzuak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Harmailatik.
- 16:15 Klip@k.
- 16:30 Ml. Eguraldia eta zerbitzuak.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Jazz zikloa.
- 17:30 Danbaka saioa.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Erreportajea.
- 18:15 Munduari bueltaka.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klip@k.
- 19:15 Harmailatik.
- 19:45 Albisteak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Ilunpean.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Berbaire: Maite Aristegi, Jon Molina eta Ander Rodriguez.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Behazulo.
- 23:45 Albisteak.
- 00:15 Amaiera.

Eguaztena, 24



Jose Angel Zabalo, 'Debarri'-ko gonbidatua
22:15

Jose Angel Zabalo Antzuolako alkatea izango da *Debarri* saioiko protagonista oraingo astean. Alberto Gorritibereak aurkeztutako saioa.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Berbaire.
- 14:15 Danbaka.
- 14:30 Ml. Eguraldia eta zerbitzuak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Teknopolis.
- 15:30 Ml. Eguraldia eta zerbitzuak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Behazulo.
- 16:15 Klip@k.
- 16:30 Ml. Eguraldia eta zerbitzuak.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Berbaire.
- 17:30 Zera dio.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Sustraia.
- 18:15 Teknopolis.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klip@k.
- 19:15 Didjeridu.
- 19:45 Albisteak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Teknopolis.
- 21:45 Berriak.
- 21:47 Debarri.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Erreportajea.
- 23:45 Albisteak.
- 00:15 Amaiera.

Eguena, 25



Maria Urtzelai 'Didjeridu' saioan
22:15

Maria Urtzelai aktore bergararra *Didjeridu*-n. Tearto antzerki taldean dabil Maria eta Amagoia Lasagabasterrek elkarrizketatu du.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Erreportajea.
- 14:15 Zera dio.
- 14:30 Ml.
- 14:35 Gezi-bideak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Sustraia.
- 15:30 Ml. Eguraldia eta zerbitzuak.
- 15:35 Sendabelarrak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Debarri.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Jazz mintegia.
- 17:30 MKT musika.
- 7:45 Gaurkoak.
- 17:47 Elkartasun bideak.
- 18:15 Iparrorratza.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klip@k.
- 19:15 Erreportajea.
- 19:45 Albisteak.
- 20:15 Marrazki bizidunak: Card Sakura.
- 20:45 Berriak.
- 21:15 Sustraia.
- 21:45 Albisteak.
- 22:15 Didjeridu.
- 22:45 Berriak.
- 23:15 Berbaire.
- 23:45 Albisteak.
- 00:15 Amaiera.

Egubakoitza, 26



Asisko Urmeneta 'Ilunpean' saioan
22:15

Asisko Urmeneta gertutik ezagutzeko aukera *Ilunpean* saioan. Oihana Elortza kazetariak elkarrizketatu du marrazkigile nafarra.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Berbaire.
- 14:15 Musika saioa.
- 14:30 Ml. Eguraldia eta zerbitzuak.
- 14:35 Gezi-bideak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Iparrorratza.
- 15:30 Ml. Eguraldia eta zerbitzuak.
- 15:35 Sendabelarrak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Didjeridu.
- 16:15 Klip@k.
- 16:30 Ml. Eguraldia eta zerbitzuak.
- 16:35 Gezi-bideak.
- 16:45 Albisteak.
- 17:00 Berbaire.
- 17:30 Eitze beroa.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Ilunpean.
- 18:15 Teknopolis.
- 18:45 Albisteak.
- 19:00 Klip@k.
- 19:15 Jazz mintegia.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Behazulo.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Ilunpean: Asisko Urmeneta.
- 22:45 Albisteak.
- 23:15 Debarri.
- 00:15 Berriak.
- 00:45 Amaiera.

Kamera aurrean



"Aznarren sasoiak euskaldunon inguruan iritzi txarra zabaltzen saiatu ziren; baina historian zehar ondo ikusiak izan gara"

JOSE FELIX DIAZ DE TUESTA | 'EUSKAL HERRIA ATZERRITARREN AHOTAN' Berriak, 2006-05-16



"MCCrendako urtea ez da txarra izan eta datorren urterako lanpostu gehiago sortzeko asmoa daukagu"

JESUS CATANIA | MCC-KO PRESIDENTEA Berriak, 2006-05-18

'Harmailatik'

ALOÑA, 3. MAILARA BIDEAN
Astelehenean, maiatzaren 22an,
22:15ean
Julen Iriondok aurkeztuta



Ikustekoa!

ASTELEHENKO GOIENKARIA

Harpidedunen

txokoa



Mundumirako opariak Asteleheneko Goienkariko harpidedunendako

Zorionak irabazleoi!

EUSKAL HERRIA aldizkarirako urtebeteko lau harpidetza

- Asier Ugarte Burgos (Aretxabaleta)
- Joxe Mari Iñarra Gantxegi (Bergara)
- Luis Malbadi Olano (Oñati)
- Jone Astigarraga Gorrotxategi (Arrasate)
- Idoia Lete Ezenarro (Bergara)



EUSKAL HERRIA aldizkariaren bost pack: lehen urteko aldizkari guztiak eta kamiseta.

- M. Karmen Inurria (Arrasate)
- Olga Corrales Garcia (Oñati)
- Luis Ginart Zubizarreta (Arrasate)
- Xabier Zalakain (Bergara)
- Eider Arzelus Garai (Antzuola)

AMPARANOIA eta MAL DE OJO kontzerturako sarrerak

- Etor Sarasua Mendizabal (Elgeta)
- Pili Makazaga Arriola (Aretxabaleta)
- Andoni Arriolabengoa Unzueta (Aramaio)
- Iñaxio Rekarte Fdez. De Lezea (Oñati)
- Marga Zubia Lezeta (Arrasate)
- Itxaro Zubillaga Beltran de Heredia (Aretxabaleta)
- Lorea Zurutuza Alberdi (Bergara)

MUNDUMIRA jaialdiko hiru kamiseta

- Sonia Urtubai Balantzategi (Arrasate)
- Itziar Osinaga Agirre (Bergara)
- Pedro Ezpeleta Urkia (Arrasate)
- Mila Oskoz (Aretxabaleta)
- Lauro Arrate Riaño (Eskoriatza)



ZOKKETAK

087 zozketa: maiatzaren 29a

Zozketan parte hartzeko baldintzak:

- Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera,
09:00etatik 18:30etara.

Kuota:

Harpidetza kuota, 24 euro
2006 osoko harpidetza kuota.

ASTELEHENKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa



- ECRON musika mikro-kate bat.
- ELGETAKO ESPALDIA KAFE ANTZOKIAN izango den moda desfilerako bi gonbidapen (Eskola Publikoaren Festaren alde).

EIBAR- LEVANTE

futbol partidua
ikusteko sei
gonbidapen.

(Saridun bakoitzarendako bi)





Hamarrekoa

ANJE DUHALDE | MUSIKARIA

"Diskoak jartzeko eskaini didaten bakoitzean, ezetz erantzun diet, ez dut gustuko"

Oihana Elortza

1. Kilometroak luzeagoak egiten dira Hegoaldetik Iparraldera alderantziz baino? Askotan hitz egiten da Iparraldeaz eta Hegoaldeaz eta bien arteko ezberdintasunaz. Nik, ordea, nahiago dut Lapurdiz edo Bizkaiaz hitz egin, adibidez, lurraldeez, herria bakarria delako; ni Euskal Herrikoa naiz.

2. Zertan gastatu zenuen musikan irabazitako lehen soldata? Ez dut gogoan, baina musikan inbertituko nuen, seguruenek. Diskoak ere garestiak ziren sasoi hartan. Anaia-arrebek diote pozik botatzen zituztela nire praktik garbitzera, poltsikoa beti zegoelako txanponen bat.

3. Asko kosta zitzaizun Errobi eta Akelarrenen pisua kentzea bakarlarri moduan hasi eta gero? Oraindik ere Errobiko musikaria naiz ni. Niretako lotura hori, erlazio hori, ez da txarra izan.

4. Ze proiektu duzu orain esku artean? Irailean kaleratuko dugu lan berria. Rafa Ruedak egingo ditu ekoizpen lanak.

5. Egia da musikarekin berreskuratu zenuela eskara? Etxean ez beste toki guztietan frantsesez hitz egin behar izaten genuen. Musika euskaraz egiten hasi ginen, eta arraroak bagina bezala tratatzen gintuzten herrian bertan.

6. Trukatzen dituzu diskoak semearekin? Bai. Musika irakaslea da Txomin eta zuzeneko emanaldietan hura da nire bateria-jotzailea.

7. Baduzu Bob Dylan-en posterrik etxeko paretan? Ez naiz horrelakoen zalea, baina badut haren argazki bat gordeta. Woodstock-en egon zen lagun batek ekarri zidan. Hura ere ikusi dut zuzenean jotzen, eta plazer hutsa izan da.

8. Arrantzara joan zara aspaldian? Lehen amuarrainak arrantzatzen nituen, baina izokineta hasi nintzen gero. Aspaldi honetan itsasoko arrantzan ere ibiltzen naiz. Buruan ditudan kontu guztiak uxatzen ditut arrantzan nabilenean, lasaigarria zait.

9. Eta trinketean ibiltzen zara? Lehen asko, baina duela lau bat urte eba-



OIHANA ELORTZA

Arrangoitzen jaio zen Anje Duhalde eta hantxe bizi da egun. Gitarra jotzen hasi aurretik, talde bateko bateria-jotzaile izan zen. Lizeoan zegoela Mixel Ducau ezagutu zuen eta bien artean sortu zuten Errobi; euskarazko lehen rock taldea, askoren ustez. Bulegoko eta lantegiko lanak utzi eta musika egin nahi zuela erabaki zuen. Disko berria grabatzen hasiko da laster.

kuntza egin zidaten belaunean eta harrezkero apenas ibili naiz, ez zait komeni. Hala ere, gustatzen zait gorputzari astinaldi batzuk ematea, gorputza nekatztea, eta mendi buelta egitera sarritan joaten naiz.

10. Izan zara inoiz disko jartzaile? Ez. Behin baino gehiagotan eskaini didate, baina beti esan diet ezetz. Ez zait gustatzen musika mota bat entzuten luza-roan egotea.



Biharamuna

Leire Lardizabal

Eitteko prest?

Lelo horrekin ospatu genuen zapatuan, urte bat gehiagoz, Atxabaltan Euskararen Eguna. Euskaraz bizitzeko eskubidea oraindik ere bermatu gabe dugun seinale! Festa giroan, **Sebastian Lizaso** eta **Unai Iturriagak** sagardo eta gazta pintxo artean egin zuten bertso saioa. Hemendik euskararen normalizazioa aldarrikatzen duen festaren antolaketan beren gogo guztia jarri dutenei, eta beren parte-hartzearekin festa jai bihurtu duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiet. Ezin esan berdina herriaren ordezkari diren beste zenbaiti, faltan bota genituen. Tira, erronka handiak herriarren lanaz eta ilusioaz lortzen direla egiaztatu zen berriz.

Arrasaten ere, **Jon Agirrek** 25 urte espetxean bete zituela oroituz, jende andanak presoeri errespetatzen ez zaizkien eskubideak aldarrikatu eta haiek zigortzen dituen espetze-politika salatu zituen. Iturrieko polikiroldegia leporaino bete zuten haiek, euskaldunok kolpatzen gaituen politika errepresiboa salatzeke, gure hitza errespetatu dadin eskatzeko lotu ziren Arrasatera. Eta konponbide garai honetan eskubide demokratiko batzuen garapena herriarren esku dagoela berretsi.

Euskaraz bizitzeko eskubidea, aske bizitzeko, adierazteko eskubidea, erabakitze eskubidea... Guztiak bermatuko badira, azenolako elkarlana dugun aurretik Euskal Herriarrok sistema demokratiko honetan! Guztion artean dugun indarrak, nola ez dugu ba lortuko! Orduan zer... zeu be eitteko prest?

Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ+hutsunea+KODEA

5767 zembakira
SMS bakoitzeko: 1,2 € + BEZA

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestiaren izena (Abestia) | KODEA

Himnoak
Eibar | **EBAR**
Athletic Club | **BILBAO**
Osasuna | **OSASUNA**
Real | **REAL**
Real Union | **UNION**

Folk
Arratsalde honetan (Sorotan Bele) | **SOROTAN**
Bai euskarari (Pantxo) | **BAI**
Bakezakeak (Anje Duhalde) | **BAKE**
Bizkaia Matte (Benito Lertxundi) | **BIZKAIA**
Eperak (Anje Duhalde) | **EPERRAK**
Euskal Herria Euskaraz (Oskorn) | **EUSKAL**
Euskal Herria Euskaraz (Oskorn) | **EUSKAL**
Ez da posible (Ruper Ordonika) | **POSIBLE**
Furra Furra (Oskorn) | **FURRA**
Galiziarra (Oskorn) | **GALIZIARA**
Germikako Arbola (Gontzal Mendibil) | **GERMIKAKO**
Haika Mutil (Mikel Laboa) | **HAIKA**

SOINUAK ERREALAK (2 SMS)
Abestiaren izena | KODEA

Izarren hautsa (Xabier Lete) | **IZARREN**
Lepoan hartu ta (Pantxo/Peio) | **LEPOAN**
Marinelaren zai (Sorotan Bele) | **MARINE**
Nere herriko neska baite (B.Lertxundi) | **NERE**
Non geratzen den denbora (Mikel Urdangarin) | **NON**
O! Ama Euskal Herria (B.Lertxundi) | **OAMA**
Tiraiki (Oskorn) | **TIRA**
Txabamabalnabu (Mikel Urdangarin) | **TXATXA**
Txoria txori (Mikel Laboa) | **TXORIA**
Zaindu maite duzun hori (Ruper Ordonika) | **ZAINDU**

Herrikoia
Bagare | **BAGARE**
Desde Santurce a Bilbao | **DESDE**
Ikusi Mendizaleak | **MENDI**
Pintxo-pintxo | **PINTXO**
San Simon eta San Judas | **SAN**

LOGOAK (SMS 1)
KODEA

LAU | MUSKARIA | AIZKORAK
NUKLEAR | KALABERA1 | EGUZKILORE3
SORGIN | POPATK | KAPUTX

OHARRAK
1. **BATERAGARRITASUNA:** Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragarri
Bertan jasoko duzu beharrezko informazio guztia.
2. **BALDINTZAK:** Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPS sistema aktibatuta izatea. GPS sistema aktibatzeke, jar zaitzez zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Kb jantziaren bakarrak ordaindu behariko duzu. Kasu guztietan deia eta GPS sisteman alta ematea doan dira.
* Euskaratutako deitu: 900 84 02 00 telefonora, * Vodafone deitu: 123-ra, * Movistar deitu: 609-ra.
3. **ZALANTZAK:** Edozein zalantza duzula, jami gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu: **902 01 21 48** telefonora.
4. **PERTSONALIZAZIOAK:** Zure neurria egin ditzailegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezakete nahi baduzu, jami gurekin harremanetan eta deitu: 902 01 21 48 telefonora.